BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA

EZTABAIDA: FALTA DA EUSKAL HERRIAN EUSKARAZKO PRENTSA ARROSARIK? /7

Goienka

EGUBAKOITZA • 2002ko urtarrilaren 18a • III. urtea • 49. zenbakia • Doan Ban

Goienka2a
'Tabakoaren kalteak' antzezlanari buruzko elkarrizketa

KIROLA
Esain-Beloki eta Olaizola II.a-Errasti aurrez aurre zapatuan Bergaran /11

GARBIÑE AGIRRE
"Anorexia edo bulimia dutenei laguntzeko taldea osatuko dugu" **/8-9**

GOIESKOLA, DEBAGOIENEKO IKASTETXE PUBLIKOEN SAREA ERATU DUTE /3

Debagoieneko gida komertzialak banatu dira oraingo astean

Debagoieneko denden, tabernen, profesionalen, eta abarren telefonoak jasotzen dituzten gida komertzialak banatzen hasi dira oraingo astean. Goiena Komunikazio Zerbitzuak argitaratu ditu gidok. Bi gida dira: bata, Bergara, Antzuola eta Elgetako telefonoak batzen dituena, partikularren telefono eta guzti; bestea, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzagakoak jasotzen dituena. Bi gidak etxez etxe banatzen ari dira egunotan, doan.

OÑATI

Juliangoa baserriko Madina-Biain anaiak etxetik atera dituzte

Eguaztenean kaleratu zituzten Oñatiko Juliangoa baserritik Madina-Biain anaiak. Kaleratzea Euskadiko Auzitegi Gorenak erabaki zuen, 1991n . Izan ere, baserria Ulmak erosi zuen 80ko hamarkadan. Alkate-dekretuarekin joan ziren Juliangoa baserrira Oñatiko Udaleko idazkaria eta udaltzainak.

ESKORIATZA

Udal aurrekontuak onartu dira, bigarren ahaleginean bada ere

Martitzenean onartu zituen Eskoriatzako udalbatzak aurtengo udal aurrekontuak. Joan den astean onartzekoak ziren, baina EAk egindako zuzenketa batzuk ez ziren garaiz heldu EHko zinegotziengana eta, horregatik, oraingo astean onartu dira. Ia sei milioi eta erdi euroko aurrekontua izango du Eskoriatzak. **/5**

IKURRINA LEGEZTATU ZELA 25 URTE

Ikurrinak 25 urte udaletxeetan

Gure ibar honek zeresan handia izan zuen 1977ko urtarrilaren 19ko gertaera historikoetan. Euskal Herri osoarendako egun gogoangarria izan zen hura, Francok boterea hartu zuenetik debekatuta izan zen ikurrina berriro legezko bihurtu zelako. Alkate talde batek bideratutako garaipena izan zen hura, eta Debagoiena izan zen mugimendua indar handienez garatu zen lekuetako bat. **/2-3**

ENEKO AZKARATE

Gutxi dagoela eta, odola ematera

Euskal Autonomia Erkidegoko odol erreserbak behera egin dutela eta, Jaurlaritzak dei egin zien herritarrei odola ematera joateko. Erantzuna bikaina izan da. Bergaran, esaterako, ohiko odol ateratze egunetan, batez beste, 65 lagun joaten badira odola ematera, eguaztenean, 123 lagunek eman zuten odola. Odol emaileen elkartekoak oso pozik agertu dira erantzunarekin. Gaur, egubakoitza, Oñatin egingo dute odol ateratzea. Ea erantzuna Bergarakoa bezain ona den.

Giokela, Okela garbia Muturretik Buztanera
Giokela, Berme Osoko Okela
Giokela, Kalitatezko Okela

OÑATI
Txantxiku

ANTZUOLA
J. Mujika

BERGARA
Urcelay
J. Leturia
L. M. Rezola

ARRASATE
J. Elortza
J.R. Otamendi
Salaberria
Agirre- Etxe

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua

Giokela
Gure Kalitatea
Giokela
GURE KALITATEA

Zer jan, hura izan.

HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

25 urte ikurrina legeztatu zutela

Ibarreko alkateek lan handia egin zuten horren alde

LEIRE KORTABARRIA

Gure ibar honek zeresan handia izan zuen 1977ko urtarrilaren 19ko gertaera historikoetan. Euskal Herri osoarendako egun gogoangarria izan zen hura, Francok boterea hartu zuenetik debekatuta izan zen ikurrina berriro legezko bihurtu zelako. Euskal abertzaleek bultzatu eta alkate talde batek bideratutako garaipena izan zen hura, eta Debagoiena izan zen mugimendua indar handienez garatu zen lekuetako bat. Hainbesterainokoa izan zen ibarraren garrantzia, ezen alkate talde iraultzaile hari Bergarako Alkate Taldea deitu zioten, Bergarako Udalak gidatu zuelako aldaketarako desio hura eta han egin zirelako orduko hainbat bilkura eta ekitaldi. Euskal Herri osoko abertzaleek parte hartu zuten.

ILUSIOA ETA ITXAROPENA

"Ilusioa, aldaketaren itxaropena... genuen alkate hasi berriak ginen", du gogoan orduko Eskoriatzako alkateak, Jabier Errastik. Debagoieneko alkateak talde hartan zeuden, eta Jose Luis Elkoro bergararra zuten buru. Espainiako Gobernuak hainbat oztopo ipini zien, baina azkenean, Arrasaten hazitako Marcelino Orejaren bidez, Rodolfo Martín Villa Gobernazioko ministroarekin hainbat batzar izan zituzten. Berebiziko garrantzia izan zuen urtarrilaren 18koak, zeinean Azkoitiko, Hernaniko, Arrasateko, Oiartzungo eta Bergarako alkateek hartu zuten parte: Espainiako Gobernuak ikurrina legezko aitortu zuen.

Urtarrilaren 19a ez dute inoiz ahaztuko ibarreko alkate izandakoek. Arrasateko, Bergarako, Eskoriatzako, Aretxabaletako... plazak ez dira sekula hain beteta eta hain giro alaian izan.

ROMAN LARRAÑAGA FONDOA, BERGARAKO UDAL AGIRITEGIA. EGILEA: ROMAN LARRAÑAGA

Sei mila lagun inguru elkartu ziren Bergarako udaletxearen aurrean.

ARRASATE PRESS

Mondragoeko plaza nagusia gainezka zegoen urtarrilaren 19an.

ARETXABALETAKO UDAL ARTXIBOA

Aretxabaletan, jasoeraren unea. Jose Kruz Etxebarria zen alkatea.

ARETXABALETAKO UDALA

Legeztapenaren aurreko irudia da hau, Urbian egindako bilera baten ateratakoa.

BERGARAKO TALDEA
Arabatik, alkate bakarra

1977an bazegoen Bergarako Alkateen Taldea izeneko elkarte bat; hark batzen zituen ikurrinaren legeztapenaren alde lan egiten zutenak. Gipuzkoarrak ziren gehienak, batez ere, Deba ibarrekoak eta Goierrikoak; bizkaitarrak bizpahiru zeuden; arabarra, ordea, bakarra zegoen, Aramaioko orduko alkatea, Julian Untzueta.

KOSTA AHALA KOSTA
Jasotzeko moduko ikurrin barik

Herritarrek ez, baina alkateek aldez aurretik jakin zuten ikurrin jasotzea izango zela urtarrilaren 19an. Baina ikurrina legez kanpokoa zenez, isilpean zeukatenez gain, beste inork ez zuen jasotzeko moduko ikurrinik. Elgetan, adibidez, premiaz erosi behar izan zuten tela, Bergaran, eta korrika eta presaka josi behar izan zuten ikurrin handi bat.

LANJARONGO BOTILA URAK
Kolore debekatuen bila

Jendeak denetarik asmatzen zuen ikurrinaren koloreak erakusteko. Granadako Lanjarongo uraren botilaren etiketak ikurrinaren koloreak zituen, eta Debagoieneko jendeak erruz erosten zituen. Jose Antonio Altunak, orduko Mondragoeko alkateak, Italiara bidaiatzen zuen, eta hango bandera zeramaten artikuluak ekartzen zituen gehienetan.

ESPAINIAKO BANDERA
Lanarengatik esker ona

Lehen, Espainiako bandera eta herri bakoitzekoa ere jaso behar ziren. Arrasaten, Espainiakoa Gabriel Mendizabalek jasotzen zuen beti, eta ikurrina legeztatu zenean, orduko alkateak, Jose Antonio Altunak, Mendizabal aukeratu zuen Arrasateko bandera jasotzeko, ordura arteko erakutsitako konpromisoarengatik esker on moduan.

JOSE LUIS ELKORO / ORDUKO BERGARAKO ALKATEA

"Herriaren lorpena izan zen"

Jose Luis Elkoro bergararra, orain 25 urteko alkatea, izan zen aldaketa bultzatzen zuten alkate taldearen buru.

Zelan hasi zen mugimendu hura?

60ko hamarkadan hasi zen halako mugimendu bat Debagoienean, ikastolen, kooperatiben... inguruan. Helburua ez zen ikurrina legeztatzea bakarrik, baizik eta euskara ofiziala izatea, lurraldetasuna... gaur egun eskatzen diren gauza berberak. Bergarak eta Debagoieneko herriok eman genion bultzada handiena.

Zein izan zen alkateon eginkizuna?

Guk herria bizi izaten ari zen borroka bideratu besterik ez genuen egin, baina lorpena herriarena izan zen. Madrilen kezka nagusia zen ikurrina Nafarroarendako ez onartzea; azkenean, Hego Euskal Herri osorako onartu zuen. Orduan, Euskal Herria indartsu zebilen, eta Madril, ahul; gerora, ordea, Madril indartu egin da eta orduko lorpen asko bertan behera geratu dira.

Zer esan gura zuen zuendako ikurrinak?

Ikurrinak zentzu sakona zuen, eta orain ere badu: herri baten nortasunaren ikurra zen, eta euskaldun askok eman dute bizia ikurrinak sinbolizatzen duenagatik. Orain ematen du ikurrina ikur bat besterik ez dela, eta ez da horrela.

JOSE ANTONIO ALTUNA / ORDUKO ARRASATEKO ALKATEA

"Zaharren poza ez dut ahaztuko"

Jose Antonio Altuna "Txatillo" arrasatearra ere ikurrinaren legeztapenaren alde lan egin zuten alkateen taldean izan zen.

Asko aldatu da ikurrinaren gaineko ikuspuntua?

Gertakari haiek bizi izan ez dutenek ezin dute bete-betean ulertu legalizazioaren garrantzia. Gu Iparraldera joaten ginen ikurrina ikustera bakarrik, eta negar egiten genuen hunkipenaren hunkipenaz.

Zelakoa izan zen zuen lana?

Ez zegoen alderdi politikoen arteko desberdintasunik ikurrinari zegokionez; guztiok elkartu ginen horretarako, Francoren aurka egiteko, eta horrek lana erraztu zuen. Bidaia, elkarrizketa eta batzar ugari egin behar izan genituen, hemen, Madrilen...

Zelan gogoratzen duzu urtarrilaren 19a?

Egun oso polita bezala. Arrasateko plaza lepo zegoen, eta Udaletxeko balkoia ere bai. Bereziki gogoratzen dudana da jende nagusiaren zoramena. Zer ziren negar haiek, zer zen poz hura... Kontuan hartu behar da zenbat hil ziren ikurrina legeztatuta ikusi barik... Orduan bai, orduan izan ginen benetan herri bat, desberdintasun barik... Ostera banandu egin gara, tamalez...

PATXI BASAURI / ELGETAKO ALKATEA

"Gure aurrekoei zor diegu"

Orain, Elgetako alkate da Patxi Basauri, baina duela 25 urte ere jarduera horretan zebilen, eta Bergarako Alkate Taldeko kide izan zen.



Ikurrina zelan ikusten den asko aldatu da, zure iritziz?

Bai eta ez. Herriaren nortasunak hiru oinarri ditu: hizkuntza, lurra eta ikurra, kasu honetan ikurrina, nire ustez gure sinbolo garrantzitsuena. Kanpora joanez gero, ikurrinaren bidez identifikatzen gaituzte errazen. Orain dela 25 urte, guretako aspirazio emozional handia zen legeztatzea, eta gaur egun hori normaltasunez ikusten badugu, gure aurretik ikurrina gorde eta zaindu zutenei zor diegu.

Egun handiak izango ziren urtarrileko haiek zuretako...

Bai, eta oso ondo gogoratzen ditut: Etxarri-Aranazko batzarrera joaten zelan saiatu ginen eta zelan galarazi ziguten; Bergaran zelan kontzentratu ginen, urtarrilaren 16an, eta orduko Espainiako Barne ministroak Bergarako alkateari zelan dei egin zion batzarrera... Urtarrilaren 19an, Elgetan ere ezohiko bilkura egin genuen eta ikurrina jaso genuen. Plazan 200 bat lagun izango ziren... Ikurrina ipini genuen eta afaltzera joan ginen gero Udaleko langileak.

ORDUAREN GARRANTZIA
Guztiak du azalpena

Alkateek eskatu zuten jasotzea zazpietan izatea: "Hurrengo egunean, San Sebastianak ziren, eta ez genuen gura ordua gauerdian finkatu eta Donostiako Udal ordezkariek ikurrina jasotzen lehenak izatearen ohorea eramaterik; izan ere, hango orduko Udala Francoren aldekoa zen, nahiz eta donostiar gehienak aurkakoak izan", dio Jose Antonio Altunak.

UDALAK EZ, HERRIA BAI
Ordezkarien beharrik gabe

1976ko uztailaren 21ean Bergarako Udalak deitutako bilkurara udal ordezkari abertzaleak joan ziren; ez, ordea, frankistak. Orduan, herriak bere bidea jarraitu zuen. Ondarroako jende multzo handi bat etorri zen, gau hartan Udaletxetik ostutako udal ikurrarekin, euren buruaren ordezkari. Ez zuten, ez, inongo alkateren premiarik.

IKURRINA, AMU BEZALA
Debekatua zegoeneko kontuak

Ikurrina debekatuta zegoenean, bonba-tranpendako amu bezala erabiltzen ziren, Guardia Zibilak ikurrina kentzera joaten zirenerako. Aramaion, 1977ko urtarrilaren 1ean, Teilamendiko gurutzean ikurrin bat agertu zen. Guardia Zibilek kontu handiena hartu zuten eta, heriotzak galaraztеko, lehergailua ipini eta gurutzea behera bota zuten.

Bailaran, labur

AURREKONTUAK

EAJ-EA koalizioak Gipuzkoako Batzar Nagusietan darabilen jokabidea kritikatu du Debagoieneko Batasunak

EAJ-EA koalizioak Gipuzkoako Batzar Nagusietan darabilen jokabidea kritikatu du Batasunak. Alde batetik, aurrekontuak oraindik ez direlako onartu. Bestetik, aurrekontuak onartzeko Batasunarekin ez duelako berbarik ere egin nahi, eta bai, ordea, PPrekin eta PSE-EErekin. "EAJ eta EA PSE-EEren bila doaz, bere eguneroko praktikan, markoaren gainditzearen aldeko apustua egiten dugunon bideari uko eginaz eta Euskal Herriak duen autodeterminazio eskubideari bizkarra emanaz", dio Batasunak GOIENKARIAra igorritako agiriak. Bestalde, Beasain-Durango errepide ardatzari lehentasuna eman beharrean, berau egiteko lanak atzeratu egin dituztela leporatu die Batasunak EAJ eta EAri. Batasunak dio Gipuzkoako Foru Aldundiak gutxienez bederatzi hilabete atzeratu duela Ormaiztegi-Zumarraga zatiaren eraikuntza. Horregatik, Beasain-Durango ardatzaren eta Debagoienaren garapenaren aldeko apusturik egin ez izana kritikatu dio Foru Aldundiari. /ENEKO AZKARATE

ERREPIDEAK

Oraingo astean amaitu dute Bergarako Zubiaurreko tunela zulatzen

Oraingo astean amaitu dute Bergarako ekialdeko saihesbidearen tunela zulatzeko lanak. Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuaren arabera, aurrez ikusitako epean amaitu dute, eta "indusketa lanak gorabehera berezirik gabe" egin dituzte. Zubiaurreko tunelak 320 metro luze ditu, eta zulatzeko, hainbat leherketa egin dituzte. Tunelaren ebakidura 11,5 metro zabal da eta zabalera horretan 3,5 metroko bi errei, metro eta erdiko bi bazterbide eta alde bakoitzean 0,75 metroko espaloiak izango ditu errepideak. Indusketa lanak joan den urriaren 9an hasi zituzten eta aurrez ikusitako epean amaitu dituzte, hau da, hiru hilabetean. Zubiaurreko tunela Bergarako ekialdeko saihesbidearen zati bat da. Saihesbidea ere aurrez ikusitako eperako amaituta egongo da, hain justu, 2002ko irailaren 5erako. /MONIKA BELASTEGI

GOIESKOLA

Debagoieneko eskola publikoen sarea eratu dute ibarreko ikastetxe publikoek

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeek proiektu komuna eratu dute. Egitasmo horri Goieskola izena ipini diote. Debagoieneko eta Aramaioko eskola publiko guztiak batu dira proiektu horretan, hau da, 14 ikastetxe, guztira. Goieskolaren aurkezpena joan den astean egin zuten Arrasaten. Egitasmoaren arduradunek aurkezpen ekitaldian esan zutenez, "Goieskolak Debagoieneko Euskal Eskola Publikoaren sarea osatzen du. Ikastetxe bakoitzaren proiektu, baliabide, ezagutza, zerbitzu eta ahaleginak besteekin konpartituz eta elkartuz. Batze horrek ikastetxeon batuketa soila gainditu egiten du eta, horregatik, ikasleek batze horren onura jasotzen dute". Honako hauek izango dira Goieskola egitasmoaren helburu nagusiak: lankidetza bultzatu, aniztasunaren balio positiboak berreskuratu, pentsamendu eta izaera guztiak errespetatu, eta ideiak zein jarrerak kritikotasunez aztertzen ikasi. /E.A.

ENEKO AZKARATE

BERGARA HIRIGINTZA

Udala Arrizuriaga parkea egokitzeko aurreproiektua aztertzen ari da

Arrizuriaga etxeko lorategiari, alboko bi eremu gehitzen dizkio txostenak

MONIKA BELASTEGI

Aurreproiektu horrek orain arte hiru gune bereizi izan direnak batu eta Arrizuriaga parkea egitea du helburu. Udala txostena aztertzen ari da.

Udala Arrizuriaga parkea egokitu eta antolaketa berria emateko aukera aztertzen ari da. Dagoeneko aurreproiektua eginda dago. Lur-Paisajistak SL enpresak aurreproiektu horretan jaso duenez, hiru eremu batuta sortuko da Arrizuriaga parkea: batetik, Arrizuriaga etxeko (duela gutxira arte Ertzaintzaren etxea izandakoa) lorategia, eta bestetik, ondoan dauden beste bi etxeren lorategiak. Horiek hiruren egingo dute Arrizuriaga parkea, aurreproiektuak aurrera eginez gero.

MONIKA BELASTEGI

Arrizuriaga etxeko lorategia eta ondoko beste bi eremu batuko ditu parkeak.

PARKE BAT, HIRU EREMU

Lur-Paisajistak SL enpresaren arabera, hiru eremu horien arteko lotura aurkitzea oso garrantzitsua da. Eta horixe da, hain zuzen, parke berrirako egin duten proposamen nagusia: hiru eremuak lotzea, baina bakoitzak duen nortasunari eutsita.

Hori horrela, gaur egun ere hiru eremuak elkarren artetik bereizten dituzten harrizko bi hormak mantentzea proposatzen dute. Betiere, elkarren artean komunikatuta jarraitzeko aukerarekin. Landaretzari dagokionez, hirurogeita hamar zuhaitz inguru daude, hiru guneak batuz gero. Aurreproiektuak dioenez, guztiak mantenduko lirateke eta beste zuhaitz eta lore batzuk landatuko. Arestian aipatu bezala, baina, asmo horiek aurreproiektuan jasotakoak baino ez dira oraindik. Udala dokumentua aztertzen ari da, egoki iruditzen zaizkion aldaketak egiteko. Arrizuriaga parkea egokitu eta antolatzeko aurrekontua 763.285 euro ingurukoa da (127 milioi pezeta).

ANTZUOLA ALDE ZAHARRA

Hirigune historikoa birgaitzeko planaren aurrerapena ikusgai

Otsail hasiera arte egongo da jendaurrean, alegazio eta proposamenak egin ahal izateko

AINTZANE IRIZAR

Hirigune historikoa birgaitzeko plan bereziaren aurrerapena ikusgai dago udaletxean. Iñaki Berasategik abenduan aurkeztu zuen bere proposamena.

Udalak ez du oraindik ezer onartu. Momentuz, aurrerapena besterik ez da Berasategi arkitektoak aurkeztutakoa.

Plan berezi horren helburua da hirigune historikoa babestu eta mantentzea, baina, era berean, birgaitzea, bizilagunen bizi kalitatea eta eraikinen euren kalitatea hobetzeko.

Plan berezi horrek hainbat irizpide, helburu eta irtenbide markatuko ditu, hirigunean edozein lan edo konponketa egin behar denerako.

Aurkeztu berri duten proposamenak irizpide orokor batzuk zehazten ditu, hirigunearen antolamenduari dagozkionak, batez ere. Hala nola, Berasategik proposatzen du plazan, Kalebarrenen eta Kalegoin ibilgailuendako eta oinezkoendako guneen bereizketarik ez egitea, oinezkoei lehentasuna ematearren; bi guneok bateratzea, kale horiek, neurri baten, behintzat, peatonalizatuz.

Herriko plaza eta frontoirako bidean dagoen plazatxoa bateratzeko proposamena ere jasotzen da dokumentuan. Alde zaharreko hainbat eraikinen etorkizuna ere zehazten da: batzuk botatzea eta beste gune batzuetan eraikin berriak egitea.

Aurkezten diren alegazioak aztertu eta Udalak berak egin ditzakeen aldaketa posibleak egin eta gero, behin aurrerapena onartzen dutenean, dokumentu zehatzagoa egitea izango da arkitektoaren hurrengo zeregina. Orduan, alde zaharreko eraikin bakoitza banan-banan aztertu eta bakoitzaren gaineko irizpide zehatzak markatuko dituzte.

Zertzelada

Plan berezi horren helburua izango da alde zaharra mantendu eta babestea, eta, era berean, birgaitzea, eraikinen kalitatea eta bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

ELGETA SAN SEBASTIAN KOFRADIA

Urtero moduan, San Sebastian kofradia batuko da domekan

1482an, Gaztelako erregealdian, Errege Katolikoek onetsi zuten kofradiako arautegia

OXEL EROSTARBE

Antzinako tradizioak agintzen duen moduan, San Sebastian kofradiako 35 kofradiakideak batuko dira domekan, santuaren eguna dela-eta.

Zapatuan, danbor hotsak izango dira nagusi Donostian eta Azpeitian. Elgetan ez da danbor hotsik izango, baina domekan, San Sebastian eguna dela-eta, herrian dagoen kofradia bakarra batuko da.

1482an, Gaztelako erregealdian, Fernando eta Isabel errege katolikoek onetsi zuten Elgetako kofradiako arautegia. Garai hartan, kofradiakideak gaizkileak bilatu eta atxilotzera konprometitzen ziren, gero justiziaren esku uzteko.

San Sebastian egunean meza entzutera biltzen ziren. Gero, sakristian, hildako kofradiakideen aldeko hileten eta mezen gastuak ordaintzeko, etxe bakoitzean diru kopuru bat eman oi zen. Gaizkileak jarraitzeari utzi dioten arren, beste ohiturekin jarraitzen du kofradiak.

ASENTZIO EGUNA ANTOLATZEN

Urtarrilaren 20an, domekan, egingo da bilera. Asentzio egunaren antolaketaz arduratuta dagoen guztia dago deitua. Bilera 18:00etan izango da, liburutegian. Gaztetxeak laguntza eskatu du Asentzio eguna antolatzeko. Zu edo herriko talderen bat badago interesatua gonbidapena luzatuta dago. Inor ez bada agertzen Gaztetxeak antolatuko du aurtengo Asentzio egunaren tradizioaren izenean.

Zertzelada

Sortu zenean, Elgetakoak, Angiozarkoak eta Uberakoak ziren kofradiakideak. Kide bat hiltzen denean, senitartekoren batek har dezake kargua, gizon edo emakume.

OÑATI LIBURUA

Iñazio Irizar/ Aloñako gurutzeari buruzko liburuaren egilea

"Gurutzeari ez ezik, Aloñaren inguru fisikoari toki nabarmena eman diot"

AINTZANE IRIZAR

Gabonetan aurkeztu zuten 'Aloñako mendikatea eta gurutzearen mendeurrena' liburua. Liburuaren egile Iñazio Irizarrekin berba egin dugu.

Ia hilabete pasatu da liburua aurkeztu zenutela. Zer-nolako harrera izan du?

Balorazio positiboa egiten dut, jendea oso pozik azaldu da; ondo saldu da, gainera. Jende batek oso ondo dagoela esan dit, eta hori asko estimatzen dut. Mendeurrenaren ospakizunak antolatzen hasi ginenean, elizaren kontuak zirela, karka batzuk ginela, eta abar entzun genuen. Askok ez zuten liburu txukun bat atera zitekeenik ere pentsatzen.

Zu koordinatzailea izan zara, baina liburua taldeko lanaren emaitza da, ezta?

Bai, zalantza barik; argazkiak, esaterako, jende askorenak dira. Liburuak 218 orrialde dauzka, eta 221 argazki. Horietatik gehienak Jon Ugarterenak, Josu Garairenak eta Jose Fernández-enak dira. Beste jende askorenak ere badaude, dena dela. Bestetik, Jose Antonio Urteaga ibili da kudeaketa lanetan. Zuzenketak Jerardo Elortzak egin ditu... Artzaintzari buruzko testuak, esaterako, Jon Ugarteren ikasketa bukaerako proiektuan oinarritutakoak dira, mendi ingeniaria da-eta. Beraz, ikusten den moduan, taldeko lana izan da.

Liburua, baina, ez da gurutzeari buruzkoa soilik.

Ez; liburuari begirada bat egitea nahikoa da konturatzeko 135. orrialdera arte ez dela gurutzeari buruzko kapitulua hasten. Ehungarren urteurrena aitzakia hartu eta, gurutzeari ez ezik, mendikatearen alderdi fisikoari ere toki handia eman diot liburuan (geologia, landaretza...). Gizakiaren aztarnak, artzaintza, karobiak... Gai ugari aurkitu daiteke.

Zer esango zenioke oraindik liburua erosi ez duenari?

Merezi duela erostea, balio duenagatik; herri kulturako liburua da, eta gerorako testimonio bat ere bada. Oñatiko kulturaren zatitxo bat batzen du. Liburu grafikoa da, gainera, eta horregatik ere merezi du. Oñatiarrendako ez ezik, ibarreko jendearendako ere interesgarria izan daiteke.

ARETXABALETA | SAN KANUTO EGUNA

San Kanutoren omenezko jaia, kalejira eta afariarekin ospatuko dute aurten ere

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtarrilaren 19an, San Kanuto eguna ospatuko du herriko gazte talde batek. Horretarako, jaia bai baina Marihuana legeztatzearen aldeko aldarrikapena ere egingo dute. Izan ere, horixe da San Kanuto egunaren helburu garrantzitsuena.

Ekitaldiak arratsaldeko seietan hasiko dira, kalejirarekin. Errotabarritik, San Kanutoren irudia asto gainean dutela, herri erdialdera jaitsiko dira, trikitilari eta guzti. Han, trago batzuk hartu eta, azkenik, afaria egingo dute jatetxe baten.

IAZ, ARRAKASTA HANDIA

Joan den urtean ospatu zen lehengo aldiz Aretxabaletan San Kanutoren omenezko eguna. Jende ugari batu zen orduan kalejiran, eta, hori ikusita, ohitura bilakatu eta urtero Marihuanaren legeztatzearen aldeko festa egitea erabaki zuen lagun talde batek.

ARTXIBOA

San Kanutoren irudia eta otzarakada pare bat marihuana eraman zituen iaz astoak.

ARRASATE | GIZARTEA

Arrasateko erraustegia erabilgarri egongo da astelehenetik aurrera

Senitartekoek telebista bidez ikusi ahal izango dute errausketa

UBANE MADERA

Gaur eguerdian inauguratu dute San Kristobal hilerriko errausketa-labea. Beste leku batzuetan baino merkeagoa izango da zerbitzu hori.

Gaur eguerdian, Arrasateko Udaleko ordezkariek errausketa-labea probatu dute komunikabideen aurrean. Horrela, inaugurazio antzekoa egin dute, eta datorren astelehenetik aurrera erabilgarri izango da zerbitzu berri hori.

San Kristobal kanposantuko barrualdean dago labe berria. Argazkian ikusten den moduan, gorpua labean sartzeko lekua besterik ez dago gelan. Izan ere, beste leku batzuetan ez bezala, Arrasaten telebista bidez ikusiko dute errausketa hildakoaren senitartekoek. Labea dagoen lekuan kamera bat izango da eta tanatorioa egiten ari diren eraikinean telebista izango duen gela bat. Senitartekoak gela horretara joan beharko dira eta telebistaz ikusi errausketa.

Irailean hasi zituzten labea egiteko lanak eta oraingo astean bukatu dituzte. Guztira, Udalak ia 91.000 euroko inbertsioa egin du (hamabost milioi pezeta).

UBANE MADERA

Bi gela izango ditu erraustegiak.Bigarren gelan telebistaz ikusiko dute errausketa.

MERKEAGO

Errausketa zerbitzua beste herri batzuetan baino merkeagoa izango da Mondragoen. Jose Mari Urizarrek, Udaleko Zerbitzu Saileko buruak, adierazitakoaren arabera, "gure asmoa da herriari zerbitzua ematea, eta ez dirua ateratzea. Kalkulu batzuk egin ditugu eta ikusi dugu 25.000 pezetarekin ez dugula dirudik galtzen; irabazi ere ez dugu egiten, baina hori da udal batek egin behar duena: zerbitzua eman". Hortaz, 150,25 euro kostatuko da zerbitzua.

LEINTZ GATZAGA

Biztanleriaren eta etxebizitzen errolda osatu da herrian

AINTZANE GARDOKI

Azaroan hasi ziren, beste leku guztietan bezala, biztanleriaren eta etxebizitzen datuak eguneratzen Gatzagan.

Debagoieneko herri gehienetan horretaz arduratuko ziren pertsonak kontratatu zituen INEk, Espainiako Estatistika Institutuak. Gatzagan, berriz, Udala arduratu zen lan horietaz.

Guztira, Udalak herriko 94 etxetara bidali zituen bete beharreko inprimakiak, azaroaren 1ean; eta herritarrek datuak osatu eta eguneratu ondoren, udaletxean bertan entregatu dituzte.

Abenduaren 28an amaitu zen INEk horretarako jarri zuen lehenengo epea. Gurean, beste herrietan bezala, ordurako ez zeuden datu guztiak batuta. Geroztik, bi aldiz luzatu du epea Estatistika Institutuak; hala, falta ziren herritarren datuak jaso zituen Udalak, eta urtarrilaren 11rako osatu zituen erroldako datuak. Beste herrietan urtarrilaren 25era arte dago aukera.

ESKORIATZA | AURREKONTUAK

Martitzenean onartu zituzten 2002. urterako aurrekontuak

Sei milioi eurotik gorako aurrekontua da

MIRARI ALTUBE

Martitzenean, bigarren ahalegin onartu zituen 2002. urteko aurrekontuak Eskoriatzako udalbatzak. Hala ere, ez zuten zinegotzi guztien oniritzia jaso, Ezker Batuko zinegotzien botoa ezezkoa izan baitzen.

Aurrekontua sei milioi eta erdi eurotik gorakoa da, eta, Edorta Zubizarreta alkatearen esanetan, inbertsioak egiteko erabiliko da diru zatirik handiena, udaletxea berregiteko eta geltoki zaharreko urbanizazioa egiteko, esaterako. Liburutegi berriko lanen eta Museo Eskola kokatu gura den Ibarraundi baserriko zaharberritze lanen gastuak ere aurrez ikusi dira aurrekontu horietan.

SAIOA OJANGUREN

Inbertsioak egiteko erabiliko da aurrekontuaren zatirik handiena

ARAMAIO | KIROLA

Asteburuan hasiko da aurtengo paleta txapelketa

Hamar bikote izango dira norgehiagokan

UBANE MADERA

Oraingo asteburuan ekingo diote amateurrendako paleta txapelketari. Hamar bikotek jokatuko dute. Zapatuan, lau partidu izango dira.

Bihar, zapatua, hasiko dira aurtengo paleta txapelketako partiduak. 09:00etan hasiko da lehenengo partidua, eta 12:00etan laugarrena. Partiduak gomazko pilotaz jokatuko dituzte, 35 tantora.

Gutxi gorabehera, Aste Santu arte iraungo du aurtengo paleta txapelketak. Hamar bikotek jokatuko dute, bi taldetan banatuta. Eta asteburu bakoitzean lau partidu izango dira (zapatuetan, jolaslekua libre badago, eta zapatuetan eta domeketan, libre egon ezean). Hala, bikote batek atseden hartuko du aldiro.

BIKOTEAK

Jokalari gehienak herrikoak dira, edo, herrikoak izan barik, Aramaioko kiroldegian ibiltzen direnak. Honako hauek dira: Arriolabengoa eta Azurmendi; Abarrategi eta Arriolabengoa; Amasene anaiak; Josu eta Julian; Emilio (parrokoa) eta Xabi; Barandiaran aita-semeak; Oyanguren eta Garaita; Aspe anaiak; eta Iñaki Nafarrate (alkatea) eta Flores. Oraingoz ez dago faboritorik, txapelketak aurrera egin ahala ikusi behar.

GoiHata
翻訳・通訳
Traducciones Translations Ubersetzungen Traduction
Badakitzu zer jarten dauen hor? Hortarako gaz.
Itzulpenak hizkuntza guztietan.
Araba Etorbidea 3-2. Eskatu Eraikina
☎ 943 79 25 75 • Faxa: 943 71 21 25
E-maila: info@goihata.com • http://www.goihata.com
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

Zabalik

ELENA LAKA

Lo egin, ume!

Eguneroko bizitzan badaude arazo batzuk, txikiak izanda ere sekulako traba eragiten digutenak, gure bizimodua laztu eta aldapan gorako trabesia gogorra bihurtzeko punturaino. Guraso askok jakingo dute zertaz dihardudan: gauak parranda batean ematen dituen ume jaioberri edo txiki bat, ez gauean ez eta siesta orduan ere begirik ez eztarririk ixten ez duen haurtxo bat. Arazoa txikia da berez: ume eder bat jaio zaizu, osasuntsua, bapo jaten duena, inoren aurrean beti barrez ari den horietakoa. Zorionekoa zeu! Baina gauetan ordu erdiro esnatzen da negar batean, edo bi-hiru ordu jarraian negarrez dihardu, itxuraz ezer falta ez duela. Eta horrela gau bat, eta bestea, eta hurrrengoa. Sufritu duenak badaki zer den hori norberaren osasunarendako: egunerokoari lo gutxi eginda ekin beharra, hurrengo gauean ganoraz lo egiteko esperantzarik gabe, asteburuetan errekuperatzeko biderik gabe. Egunak joan, egunak etorri, arazo larria bihurtzen da neke fisikoa, lo-eza. Umore txarra kalean, etxean, umearekin. Egoera hau bizi dutenendako arazoa larria denez, Estivill doktoreak txurroen pare saldu ditu *Duérmete niño* liburuaren aleak. Gaixoek Lourdes bezala hartzen zuten guraso kaltetuek liburua. Umeari lo egiten erakustea, loaldi luze baten paradisura iristeko metodo Cartesiarra agintzen zuen autoreak. Hamabi urtean guraso askorendako harri filosofala izan da; beste askorendako, promesa zapuztua. Olatuak buelta eman du ostera, eta orain etorri da metodoaren erantzuna. Kritikak sortu zaizkio Estivillen metodoari, umeen loan arau orokorrak ezarri nahia, honetan orokortasunik ez dagoenean, umeak abandonatzea leporatzen diote. Eta Estivillek berak ere onartu du ume guztiak ez direla berdinak, gurasoek ere beraien artean badituztela zenbait berezitasun, agian puntu batzuk errebisatu beharra dagoela... Total, azkenean gurasoak berriro ere umezurtz, noraezean, eta gainera logurak. XXI. mendean lehengo gizaldietan legez.

Gutunak

Konpromisoa presoekin

Arrasateko esaera zahar batek dio: lekutan dago Mendaro... Eta Huelva, Puerto de Santamaria... eta abar... non dauden konturatzeko oso komenigarria da asteburu batean presoak bisitatzera joatea.

Gabon hauetan lagun batzuk Huelvaraino joan gara Jesus Mari Zabarte "Garratz" eta Jon Agirre "Azpiko" bisitatzera. Su-etena izan zenean, Kanariasetatik Huelvaraino ekarri zituzten. Jonek 20 urte daramatza preso, eta Jesus Marik, berriz, 17 urte. Biek hiru laurdenak aspalditik bete dituzte, eta etxean egon behar zuten.

Abenduaren 28an, egubakoitza, Arrasatetik irten genuen. Hamaika ordu geroago mila eta ehun kilometro egin eta heldu ginen Huelvara. Bidean makina bat izotz, laino eta istripu ikusi genituen. Baina, espetxeko lagunekin elkartu aurretik, ia kartzelan bertan, Goardia Zibilen kontrol batean gelditu gintuzten eta ordu erdi pasatu eta gero, pasatzen utzi ziguten.

Espetxean berrogei minutuko bisita izan genuen, eta hainbeste urte dispertsio nazkagarria jasan eta gero, azpimarratzekoa, txalotzekoa da gure presoek daukaten morala eta duintasuna.

Orduan konturatzen zara txapela kentzekoa dela hainbeste urtetan astero edo hamabostero haiengana hurbiltzen diren senideak. Baita ere Penintsula guztian egoera latza bizi duten gizon-emakume solidario asko dagoela, astero laguntza eskaintzen dutenak.

Eta guk, diferentzia politiko guztien gainetik, dispertsioa amaitzearen eta presoen eskubide demokratikoak errespetatzearen alde gaudenok, zerbait gehiago ezin dugu egin? Nire ustez kasu askotan bai. Horietatik zenbat gara presoak bisitatzera joaten garenok? Ehuneko txikia.

Euskal presoak Euskal Herriratzen ez dituzten bitartean, konpromiso txikitxo bat hartzea proposatzen dizuet: urtean behin, gutxienez, herriko preso bat bisitatzera joatea. Ez bakarrik gure herriko berotasuna eramateko kartzelatara, baita presoen berotasuna guk hartzeko ere.

JUAN RAMON GARAI
Arrasate

Ertzaintzak euskal gazteria tirokatzen du

Iruneko enboskadan gertaturikoa ez da kasualitate hutsa. Ertzaintzak, bere errepresio bidean, jauzi kualitatibo bat eman zuen, bertan zeuden gazteak hiltzeko asmoz tirokatuz. Ondorioak kontuan hartu gabe, Ertzaintza prest egon zen gazte hauen hilketa bere gain hartzeko. Hau da guk daukagun polizia? EAJren polizia?

Argi geratu da beraien jarrera gure etsairik gogorrenarenaren parekoa dela. Erabaki eta ekintza bakoitzak bere ondorioak ditu, beraiek ondo erakutsi diguten bezala.

Hau da EAJk eginiko apustu politikoa Euskal Herrian bakea lortzeko? Oker dabiltza.

ARRASATEKO SEGI

Eskerrik asko!

Arrasateko kabalgata antolatzen duen komisioaren izenean natorkizue, gutun hau argitaratzeko eskatzeko asmoz.

Errege bezpera egunean Arrasateko kaleetatik irten zen Errege Kabalgatako antolatzaileok eskertu nahi genituzke jasotako laguntza guztiak. Lehenik eta behin, elkarte hauek eskertu nahi genituzke: Arrasateko Udala, San Viator ikastetxea, SUDC, Gurutze gorria, Eroski, Ceciaga, Kutxa, Euskadiko Kutxa, Banco Guipuzcoano, Banco de Vitoria, BBVA, La Caixa, Amuebladora Mondragonesa, Loramendi Kirolak, Eya, Tamayo, Mugarri, Meca, Aldibi Udalaitz autoak eta Ikatz.

Bestalde, kabalgatan edozein eratara lagundu zenuten guztioi (antortxero, tanborrero, kantari, Belengo pertsonaiak... eta Gorosabel familiari) bihotzez, mila esker. Aurten, bereziki antortxero bezala irten diren 12 pertsona helduei ere gure eskerronik beroena.

Azkenik, bai Iturbide egoitzan, bai kaleetan zehar egindako ibilbidean, bai herriko plaza nagusian eta Eskualdeko ospitalean egondako guztiei ere gure eskerronik beroena. Urte zoriontsua igaro eta hurrengo urte arte.

ARRASATEKO ERREGE KABALGATA ANTOLATZEN DUEN KOMISIOA
Arrasate

Herrialde totalitarioetan bezala

*Egunkaria*ko eta *Gara*ko langileok gogor salatu nahi dugu Espainiako justiziaren aldetik Martxelo Otamendi *Egunkaria*ko zuzendaria, Mertxe Aizpurua *Gara*ko zuzendaria eta Jon Abril *Egunkaria*ko kolaboratzailea pairatzen ari diren erasoa. Eraso hori, gainera, beraien aurkakoa ez ezik, euskal herritar guztien aurkakoa dela iruditzen zaigu, adierazpen askatasunaren aurkako erasoa izanik, guztien aurkakoa baita.

Herrialde totalitarioetan bezala, kazetari izatea ezinezko bihurtzen ari da Euskal Herrian. Bestela, nola baloratu behar da Jon Abrili, Auzitegi Nazionalaren aurrean *Ttipi-Ttapa* telebistarentzat irudi batzuk grabatzeagatik, talde armatuari laguntza ematea leporatu eta sei urteko kartzela zigorra eskatzea? Edo, Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpuruari ETAri egindako elkarrizketa bateko galdera baten ondorioz erakunde armatua "hiltzera bultzatzea" leporatzea?

Beste garai batzuetan boterearekin bat ez zetozenak jazarri eta zigortzeko erabiltzen ziren argudio eskas berak iruditzen zaizkigu, justizia inpartzial baten aurrean inolako funtsik izango ez luketenak. Tamalez, eta azken urteotan ikusitakoak ikusita, okerrena gertatzea ezin dugu baztertu.

Edonola ere, guk erabat sustengatuko ditugu Martxelo, Mertxe eta Jon bezala kazetari lana zintzotasunez egiten duten guztiak, eta aurrera segituko dugu euskal komunikazio esparrua garatzen eguneroko lanean.

*EGUNKARIA*KO ETA *GARA*KO LANGILEAK

Zuzenketa

Joan zen asteko GOIENKARIAren azalean, Euskadiko Itzulia Bergaran hasiko dela irakur zitekeen. Titularrean, 2002. urtean, hau da, aurten itzulia Bergaran hasiko dela irakur zitekeen. Azpiko testuan, ostera, bi urte barru, hau da, 2004. urtean hasiko dela itzulia Bergaran. Titularra oker zegoen. Horixe argitu nahi dugu, hain justu, Euskadiko Itzulia ez dela Bergaran hasiko aurten, baizik eta bi urte barru, 2004. urtean.

GOIENKARIA

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Ospetsu eta sasi-ospetsuei buruzko aldizkari eta telebista saioek ikusmin handia sortzen dute. Espainian ez ezik, gurean ere jarraitzaile asko ditu "prentsa arrosak". Bertan eta bertakoendako egindako telebista saioak ere baditugu hemen, ETB2ko *Lo que faltaba* esaterako. Aldizkaririk, ostera, ez dago. Baina norbaitek faltan botatzen du euskarazko prentsa arrosarik? Hizkuntzaren normalizazioaren seinale izango litzateke bertako pertsona publikoen kontuei buruzko aldizkariak kioskoetan eskura izatea?

Falta da Euskal Herrian euskarazko prentsa arrosarik?

Prentsa arrosa euskaraz? Eta, zertarako?

JOXE LAZKANO
Irakaslea

Euskaraz irakurri ahal izateko ze ondo pasatzen duen elurretan Antonia dell'Attek bere benetako amodioarekin, semearekin? Edo Euskal Herriko Antonia dell'Atte batek pasa dituen egunak Seychelle uharteetan orain arte ezagutzen ez zitzaion amorantearekin?

Alde batetik, zenbaiten iritziz, pauso txiki baina garrantzitsua izango litzateke euskararen normalizaziorako. Mundu guztiak bezala, euskaldunok ere eskubidea dugu gizartearen alde *garrantzitsu eta interesgarri* horri dagokion informazioa gure hizkuntzan jasotzeko. Bestetik, ez dakit Euskal Herrian Antonia dell'Atterik dugun, ezta noraino helduko den gure *famosilloen* mundua.

Bietan ere, zorionez edo zoritxarrez, horrelako zerbait egitetik urruti samar gaudela ematen du, azken urte hauetan hedabideetan euskararen beherakada nabarmena kontuan hartzen badugu: agertzen ez dena ez da existitzen, beraz, existitzen ez denak ez du kolore premiarik, ez arrosa, ez hori, ez berde, ez beltz. Edozein kasutan ere, euskaldunok, burugogorrak garenez gero, aurrera egitea lortzen dugu, eta ondorioz, gizarte aurreratu, moderno eta merkantilista honetan integratu inolako konplexurik gabe. Hedabideetan adibideak asko dira.

40 principales moduko irrati formulek ondo funtzionatzen dute. Ez dago arazorik, geuk ere izango dugu geurea: Euskadi Gaztea. Zergatik dago derrigortua musikazalea horrelako irrati eredua jasatera? Beste eredu asko dago, baina EITBko buruei hori gustatu-komeni zaienez, izorratu egin behar.

Telebistan *Crónicas Marcianas* bezalako saio bat behar dugu euskaraz. Bildu dira EITBko buruak. Sorginen erratza, baratza; ez, ez; laratza, bai, *Sorginen Laratza*: oso giro euskalduna, sasi modernoa, bertsolaria aurkezle, sorginak eta akelarreak pantailan, sekulakoa! Total, astaputza, eta txotxitxotxolo bat! Zergatik gaude euskaldunok askotan kopien kopia eskasak jasatera kondenatuak? Ez dago uniformizaziotik alde egiterik eta kalitatezko gauzak egiterik euskaraz? EITBko buruak noiz bilduko beldur naiz. Bitartean, GOIENKARIA izan daiteke leku aproposa, jaiotza, ezkontzen eta ospakizun berezien argazkien bidetik, gure bizitzak arrosa kolorez margotzen hasteko. Geurea da etorkizuna!

"Zergatik gaude euskaldunok askotan kopien kopia eskasak jasatera kondenatuak?"

...Unai Iturriagaren neskalaguna ezagutzeko

ITXARO ZUBILLAGA
Kazetaria

Egia esateko, ez dut ikusten euskarazko pentsa arrosaren premiarik, beharrik. Espainian egiten denaren premiarik ikusten ez dudan legez. Baina onartu behar dut merkatu zabal eta oparoa egon, badagoela. Duela hamar urte, nork pentsatuko zuen 2002. urtean audientzia handien ematen dituzten programak prentsa arrosa jorratzen dituztenak direla? Nork pentsatuko zuen gehien saltzen diren aldizkariak era horretakoak izan behar zutela? Ahaztu barik, jakina, gaur egun prentsa horri esker bizi den jende kopurua, eta batzuk ederto aberasten, gainera.

Euskal Herrian, egin, egiten da era horretako prentsa, baina euskaldun famatuei buruz berba egin beharrean, Espainiako pertsonaiekin. Folklorikoen, toreatzaileen eta horrelakoen gainean hitz egiteagatik programa espainolak direla kritikatu izan da. Kritikatzeko eskubidea guztiok daukagu eta horrelako saioak ez gustatzea ulertzen dut, baina kritikaren arrazoia jendearen jatorria bada, alda ditzagun protagonistak eta Carmina Ordoñezi, Rocio Juradori, Jesulini eta konpainiari buruz jo eta fuego ibili beharrean, hitz egin dezagun gure aktore, bertsolari, kirolari eta politikoei buruz.

Ez duzue uste Felipe printzea norekin ezkondu behar den jakitea baino askoz ere interesgarriago izango litzatekeela Unai Iturriagaren neskalaguna ezagutzea? Eta horrela, mila adibide. Euskarazko prentsa arrosa, zergatik ez? Nik askoz ere gusturago ikusi, entzun eta irakurriko nuke. Hala ere, jakin badakit oso zaila izango litzatekeela horrelako saio bat egitea. Guri ere kanpokoa kritikatzea etxekoa kritikatzea baino gehiago gustatzen zaigulako. Are gehiago, nik lan egiten dudan saioan hemengoren bati astindutxoren bat, hau da, errepasoren bat eman diogunean, era guztietako kritikak jaso ditugu. Ohitura falta izan daiteke edo, beharbada, euskaldunak desberdinak garela.

Eta bukatzeko, gure prentsa arrosan agertuko lirateke Paco Porras, Tony Genil, Loli Álvarez, Carmina Ordoñez bezalako xelebreak. Eta nor izango litzateke, Lecquio kondearen edo Dinioren bidea jarraituz, bere tramankulua erakusteko prest legokeena? Jakitea gustatuko litzaidake, bai horixe!

"Lecquioren edo Dinioren bidetik, bere tramankulua erakusteko prest legoke norbait?"

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Athletic-eko zaleek Reala bigarren mailan ikusi nahi dute?

Gora eta Behera

KIROL INSTALAZIO BERRIAK

Hurrengo bi urteetan Debagoieneko bi herritan kirol instalazio berriak egingo dituzte. Bergaran zeharo zaharturik dagoen igerilekua bota, eta igerilekuak, futbol zelaia eta hainbat gimnasio berriri ekingo diete. Oñatin kiroldegia handituko dute pabilioi berriarekin. Herri hauetako kirolariek eskertuko dute ondo.

TXARTEL BATERATUA EZIN ABIARAZI

Txartel mankomunatua ezin izan da urtarrilean martxan jarri, ez baitute azkenengo uneko adostasun eza gaindittu. Herritik kanpo lana egiten dutenek itxaron egin beharko dute bailarako kirol instalazio guztiak ia doan erabili ahal izateko.

GERARDO ESPARZA
Oñatiko Kirol Teknikaria

Koplak

Garraio publikoak

Bergaratikan Arrasatera
igo da busa sei pela,
halere goaz, oraindik ere,
"al aire libre" bezala.

Horren autobus deserosorik
ez da egon egundaino,
izotza bada, barruan goaz
hotzago kanpoan baino.

Euria bada, itoginekin
baietz goitik-behera busti,
komun txiki bat jarri daiteke
bere dutxa eta guzti.

Hamar jarleku jartzen dituzte
bost sartzen diren lekuan,
ipurdi erdi kanpoan daukat
eta belaunak kolkuan.

Pesak ezin du horrela segi
ez daki jokatzen garbi,
zazpi lanpara ageri arren
batek egiten du argi.

Beraz, txartela igo daiteke
baina baldintza batekin:
urte berria has dezatela
autobus berriarekin.

ENAITZ ALUSTIZA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK Goio Arana (Diseinua) Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA Iban Arantzabal
TESTUEN ZUZENKETA Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA Julen Aranguren
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

Garbiñe Agirre

EUSKADIKO ANOREXIA ETA BULIMIAREN AURKAKO ELKARTEKO GIPUZKOAKO PRESIDENTEA

“Anorexia edo bulimia duten ibarreko gaixoen familiartekoei laguntzeko taldea osatuko dugu Arrasaten; bi psikologo etorriko dira hamabostean behin”

Euskadiko Anorexiaren eta Bulimiaren Aurkako Elkarteko (ACABE) Gipuzkoako adarrak eta Debagoieneko udal nagusietako Gizarte Ongizate zerbitzuek ekimena abiaraziko dute aurki: gaixo horien familiartekoei laguntzeko zerbitzua jarriko dute Arrasaten. Garbiñe Agirre da ACABEko Gipuzkoako presidentea. Hark eman dizkigu ekimen horren gaineko azalpenak.

ENEKO AZKARATE

Anorexia edo bulimia gaixotasunak dituzten debagoiendarrei laguntzeko ekimena bultzatu nahi duzue. Zertan datza ekimenak?

Ez da ekimen berria. Gaur egun elkarteak eskaintzen duen zerbitzua Debagoienera gerturatu nahi dugu. Horixe da berritasuna. Gure egoitza Donostian dago, eta Donostialdekoek ez dute arazo handirik gurekin harremanetan jartzeko eta gure zerbitzuen onuradun izateko. Aldiz, ibar honetakoendako esfortzu handia da hainbatean behin Donostiaraino joatea. Arazo hori konpontze aldera, Debagoieneko udaletako Gizarte Ongizateko zerbitzuekin harremanetan jarri gara, eta haien laguntzari esker, eskaintzen ditugun zerbitzuak Debagoienera ekarriko ditugu. Hortaz, hamabostean behin etorriko gara Arrasatera, Monterronera. Eta familiarrekin hasiko gara. Haiei laguntzeko taldea osatuko dugu, eta bi psikologo etorriko dira hamabostean behin. Interesa dutenek Debagoieneko udaletako Gizarte Ongizate zerbitzuetara dei dezakete. Asmoa da Debagoieneko lehen laguntza taldea otsailean osatzea. Gauzak ondo badoaz, gaixoei laguntzeko zerbitzuak ere eskaintzen hasiko gara, eta, behar izanez gero, egoitza irekiko dugu Arrasaten.

Askok dute gure ibarrean horietako gaixotasunen bat?

Datu zehatzik ez daukagu, gurera etortzen diren eta gure fitxak betetzen dizkigutenen datuak baino ez ditugulako. Informazio eske, jende dezente hurbiltzen da guregana, hori badakigu, eta horregatik hurbildu nahi dizkiegu gure zerbitzuak debagoiendarrei.

Anorexia edo bulimia gaixotasunak dituztenen eta haien familiartekoen elkartea da ACABE?

Anorexia edo bulimia dutenak, haien familiartekoak eta gai horrekin arduratuta daudenak batzen dira ACABEn. Edozelan ere, gaixoen familiartekoak dira elkartearen bultzatzaile nagusiak.

Eta zer lan egiten du ACABEk?

Batetik, informazioa, orientazioa, laguntza eta babesa eskaintzen dizkiegu gaixoei, gaixotasun horiekin arduratuta daudenei eta, oro har, gaixotasun horien gainean informazioa jaso gura dutenei. Bestetik, elkarteko bazkide direnei zuzendutako hainbat ekintza ere antolatzen ditugu: laguntza taldeak osatu, tailerrak edo hitzaldiak antolatu... Anorexia edo bulimia dutenei eta haien familiartekoei laguntasuna eta beharrezko zerbitzuak eskaintzea aldarrikatzen dugu, arlo guztietan: hezkuntzan, osasunean eta gizarte arloan. Horrekin lortu nahi dugu erakunde publikoek lagun gaitzatela.

Osasun publikoari dagokionez, ondo prestatuta gaude alor horretan?

Asko hobetu da. 1994. urtetik hona, hau da, elkartea sortu zenetik hona, igarri da gero eta zerbitzu hobeak ditugula. Egia da, hala ere, eskaintzen diren baliabideak beharrak baino urriagoak direla. Bitartekoak ez dira nahikoak. Ospitaleei dagokienez, asko hobetu beharra dago, eta, gaixoendako ez ezik, haien familiartekoendako ere ganorazko zerbitzuak eskaini behar dira.

Zer da anorexia eta zer da bulimia?

Gaixotasun ezberdinak izan arren, osasun-arazo mota berberak dira. Ezberdintasuna hau da: anorexia gaixo batek kontrola dezake zer eta zenbat jaten duen, betiere, onartzen badu gaixo dagoela; bulimia duenak, ostera, ezin du kontrolatu zenbat jaten duen. Kontrolatu ezin duenez, modu konpultsiboan jaten du, errudun sentitzen da eta, gehiegi jan duenez, uste du gizendu egingo dela. Orduan, botaka egiten du edo larregiko ariketa fisikoa egiten du. Azkenean, bai anorexia gaixoek bai bulimia gaixoek ez gizentzea dute helburu, gizen daudela uste dutelako. Hala ere, esan behar da bi gaixotasunak oso lotuta daudela eta pertsona bakarrak bi gaitzak izan ditzakeela: larregiko argal dagoen 40 kilo pisatzen dituen pertsona batek 80 kilo izan ditzake hilabete gutxiren ondoren. Biak ere buruko osasun-arazoak dira.

Zein da arazoa: gaixotasun ezezagunak direla, sendabide egokirik ez dagoela...?

Tratamendua ez da erraza; luzea eta garestia da. Modu koordinatuan lan egingo duen lantalde egokia behar da. Gutxienez, psikiatra, psikologo eta endokrinoz osatutako lantaldea behar da. Gaixotasun horiek ondo ezagutzen dituzten esperientzia handiko profesionalak behar dira. Kontuan hartu behar da, bestalde, anorexia eta bulimia gaixo askok ez dutela gaixotasuna onartzen, eta, hortaz, ez dutela besteen laguntzarik onartzen. Horregatik, pazientzia eta ofizio handia behar dira.

Gaixotasun berri samarrak dira?

Ez, anorexia eta bulimia ez dira gaixotasun berriak. XVII. mendean ere baziren anorexia eta bulimia gaixoak. Sexua errefusatzen zuten, baraualdiak egiten

BURUKO GAITZA?

“Bai anorexia gaixoek bai bulimia gaixoek ez gizentzea dute helburu, gizen daudela uste dutelako. Pertsona bakarrak bi gaitzak izan ditzake. Biak ere buruko osasun-arazoak dira”

ZELAN SENDATU?

“Tratamendua ez da erraza; luzea eta garestia da. Modu koordinatuan lan egingo duen lantalde egokia behar da, psikiatra, psikologo eta endokrinoz osatutako lantaldea”

BETI GIZEN

“Gorputzaren pertzepzioa deformatua edo desitxuratua dauka anorexia gaixoak. 40 kilo pisatu arren, ispiluaren aurrean jarri eta 80 kilo pisatzen duela uste izango du”

OSATU DAITEKE?

“Tratamendu egokiarekin, gaixo guztiak hobetuko dira. Batzuk ez dira inoiz sendatuko; beste batzuek hobera egingo dute, eta beste batzuk betiko osatuko dira”

ENEKO AZKARATE

zituzten edo flagelatzen ziren mistikoekin lot ditzakegu gaixotasun horiek. Gaur egun, gorputzari kultuarekin lotzen dira. Gizartean indarrean dauden balioek -modak, eta abar- gaixotasun horiek areago ditzakete.

Orain dela zortzi urte, 1994. urtean, hain justu, sortu zenuten elkartea. Zenbat bazkide ditu ACABEk gaur egun?

Bazkide kuota ordaintzen duten 150 bat familia izango gara eta beste 50 bat kuotarik ordaintzen ez dutenak. Datu horiek Gipuzkoari bakarrik dagozkie.

Gaixotasun horiek populazioaren zein zatiri eragiten dien badakizue?

Euskal Autonomia Erkidegoan ez daukagu datu zehatzik. Beste leku batzuetan, Nafarroan edo Madrilen, esaterako, ikerketak egin dira eta badakigu 12 eta 20 urte arteko nesken artean, %4,5ek dituztela gaixotasun horiek. Bestalde, 12 eta 65 urte arteko emakumezkoen artean, %2k dute anorexia eta %4k bulimia.

Emakumezkoak aipatu dituzu. Emakumeei bakarrik eragiten diete anorexiak eta bulimiak?

Kasu gehienetan, %90 inguru, emakumeei eragiten diete. Gizonezkoei, gutxiago. Ez dakigu zergatik den hori.

Moda, itxura, gorputzari kultua, dietak, gehiegizko ariketa fisikoak... Gaur egun indarrean dauden balio horiek eraginik badute gaixotasun horietan?

Eragina bai, baina ez da nahikoa. Esaterako, zuk aipatu dituzun horiek guztiak gaur egungo gizartean indarrean dauden balioak dira, hortaz, populazio osoari eragiten diete. Baina batzuei gehiago eragiten diote eta muturreraino eramaten dute, gaixotu arte. Beste batzuk, ostera, ez dira gaixotzen. Hortaz, badaude hainbat faktore. Batzuk ezagutzen ditugu, eta beste batzuk, ez. Antza, genetikak ere badu zerikusia. Hala ere, jarrerak oso garrantzitsuak dira. Anorexia edo bulimia gaixo gehienak, esaterako, dieta egitetik hasten dira. Familiarteko arazoak, gurasoak banatzeak, eta abarrek ere badute zerikusia. Baina, berriz diot, aurretiko jarrerak edo konduktak berebiziko garrantzia dauka, dieta edo ariketa fisikoa egiten duten guztiak ez direlako anorexia gaixoak. Edozelan ere, gaixotasun ezezagunak dira horiek.

Gaitz horiek antzematea ez da erraza, ezta?

Ez, ez da erraza. Eta, gainera, gaixoak berak ez du gaixotasuna antzemango, ez duelako onartu ere egingo gaixo dagoenik. Gorputzaren pertzepzioa deformatua edo desitxuratua dauka anorexia gaixoak. 40 kilo pisatu arren, ispiluaren aurrean jarri eta 80 dituela uste izango du. Aitortu edo ez aitortu, beti gizenago ikusiko du bere burua. Ingurukoak oker daudela pentsatuko du eta ez da gaixotasunaz jabetuko. Gauzak ondo ez doazela konturatuko da lehenbizi, triste dagoelako, ilea jausten zaiolako, hilekorik ez duelako, hotza sumatzen duelako edo larruazala sikatzen zaiolako. Bulimia duena errazago jabetuko da gaixotasunaz, besteak beste, nahita egingo duelako botaka.

Anorexia eta bulimia senda daitezke?

Bai. Gauza bat azpimarratu behar da: tratamendu egokia jasoz gero, gaixo guztiak hobetuko dira. Hala ere, gaixoen hiruren bat ez da inoiz sendatuko; beste hiruren batek hobera egingo du, guztiz ez osatu arren; eta beste hiruren bat betiko osatuko da.

Eta sendatzeko lehen urratsa zeinek ematen du, gaixoak ala ingurukoek?

Denetarik dago. Anorexia gaixoen kasuan, jeneralean, familiartekoak edo ingurukoak izaten dira. Bulimia gaixoetan, gehienetan, gaixoak berak ematen du aurreneko urratsa.

Familiartekoen, koadrilakoen eta, oro har, ingurukoen laguntza ezinbestekoa da?

Bai, oinarrizkoa da, ez dakizu zein neurriraino den garrantzitsua. Ez gaitzala manipulatu, ez gaitezela haren jokoan edo trikimailuetan erori... Horiek guztiak oinarrizkoak dira.

ENEKO AZKARATE

"Askok ez dakite gaixorik daudenik ere"

Guk uste baino gehiagok daukate bulimia edo anorexia?

Bai. Askok ez dakite gaixorik daudenik ere, ez gaixoek eurek ezta ingurukoek ere ez dakitelako gaixorik daudela. Pertsona heldu askok ere ez dakite gaixorik daudenik ere. Jakina, oso-oso argal dagoenari, hau da, bere pisu normala baino askoz ere argalago dagoenari, errazago antzematen zaio.

Baina gaur egun, nork ez du dietarik egiten, edo inoiz egin, nork ez du zaintzen pisua, nork ez du ariketa fisikorik egiten...?

Baina arazoa ez da hori. Arazoa dieta edo ariketa fisikoa muturreraino eroatea da. Esaterako, ondo jaten duen baina gehiegizko ariketa fisikoa egiten duen asko eta asko daude, gimnasioetan, esaterako. Jaten ditugun eta erretzen ditugun kalorien artean orekari eustea da kontua. Nahikoa jan arren, larregi erretzen badugu, arazoak izan ditzakegu eta desnutriziora hel gaitezke. Gizonezkoen anorexia edo bulimia asko larregiko ariketa fisikoak eragindakoak izaten dira; emakumezkoetan, berriz, gutxiegi jateak edo larregiko dietak eragindakoak. Janarekiko edo gorputzaren irudiarekiko dugun jarrerak eragiten ditu bi gaixotasun horiek.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

Podiuma

Ritxar Fernández | GIPUZKOAKO KROS TXAPELDUNORDEA |

Ritxar Fernández atleta oñatiarra (31 urte) bigarren izan zen domekan Oñatin jokatutako Gipuzkoako Kros Txapelketan. Asier Cuevas eibartarrak eskuratu zuen txapela, eta Fernándezek zortzi segundo besterik ez zuen galdu Cuevasekiko. Hainbat kategoriatan banatuta, 320 korrikalari izan ziren lehian. Yerai Varela oñatiarrak kadeteen proba irabazi zuen.

Pozik domekan lortutako emaitzarekin?

Bai. Aurten lehenbizikoz ari naiz kros probetan parte hartzen, negu partean indarra hartzearren batez ere, eta uste baino hobeto nabil. Asfaltoan eta pistan moldatzen naiz ondoen, eta nire korritzeko modua ez da kroserako egokiena, belaunak gehiegi altxatzen ditudalako. Lokaztutako zirkuituetan ere indar aldetik justu samar ibiltzen naiz. Hala ere, Gipuzkoako kros zirkuituko lehenbiziko proba irabazi nuen Irunen, eta ontzat ematen dut domekako bigarren postua. Asier Cuevas oso indartsu dabil, eta banekien zaila izango zela hura gainditzea. Esperientzia handiagoa du eta niretako balio handia dauka bigarren postuak.

Zelako lasterketa izan zen domekakoa?

San Martingo zirkuituan entrenatzen ibilita nengoen txapelketaren aurretik, baina domekan nahiko leun zegoen Murgialdaiko partea. Gogorra egin zitzaidan zirkuitua. Lasterketa nahiko azkarra izan zen, eta hasieratik sei lagunez osatutako taldetxo bat ibili ginen elkarrekin. Ondoren, Kimei eta Serrokh afrikarrek aurrera jo zuten, Zarraga bizkaitarrak ere erasoa jo zigun, eta Gipuzkoako Txapelketa Cuevasen, Javier Cuadradoren eta hiruron artean erabaki zen. Cuevasek metro batzuk atera zizkidan eta azkeneko itzulian lehia handia izan zen Cuadradoren eta bion artean. Indarrak ondo neurtu nituen, eta zaleen animuei esker bost segundoko aldea atera nion Cuadradori azken itzulian.

AINTZANE IRIZAR

Ritxar Fernández oñatiarrak lasterketa bikaina egin zuen domekan.

> "Atletismoan izan dudan esperientziarik hunkigarrienetakoa bizi izan nuen domekan. Bigarren postua ontzat ematen dut"

> "Aurten lehenbizikoz ari naiz kros probetan parte hartzen, indarra hartzearren, eta uste baino hobeto moldatu naiz"

Etxean korritzea motibagarria izango zen.

Oso. Atletismoan izan dudan esperientziarik hunkigarrienetakoa bizi izan nuen domekan. Zirkuitua jendez beterik ikusteak eta zaleen animuak izugarrizko indarra eman zidaten. Oñatin futbola ez denak ez du garrantzi handirik, eta pozgarria izan zen niretako horrenbeste zale ikustea. Gipuzkoako Kros Txapelketa antolatzeagatik zorionak eman behar zaizkio Aloñari.

Antza, badago harrobia Oñatin. Yerai Varelak kadeteen proba irabazi zuen.

Kroseko probetan etorkizun handia du, klasea eta indarra dauzkalako. Asfaltoan korritzeko ez du horrenbeste erraztasunik, baina oso kroslari ona izan daiteke. Bere kategorian Lasarten irabazi izanak sekulako meritua dauka.

Lasarteko krosean izango zara aurten?

Bai, kroseko denboraldia amaitzeko, Lasarteko Nazioarteko Krosa (urtarrilaren 27an) eta Euskadiko Txapelketa (otsailaren 9an) korrituko ditut. Horren ondoren, udaberriko denboraldiari ekingo diot.

Eta udaberriari begira, zeintzuk dira zure helburuak?

Azkoitia-Azpeitia eta Donostiako maratoi erdietan marka ona egitea nahiko nuke. Nahiago dut aurrez markarik ez jartzea. Ekainean, berriz, pistan 5.000 eta 10.000 metroetako probetan ibili nahi dut. Eta gero, udazkenean maratoia egitea erabakitzen badut, abuztu amaieran hasiko nintzateke berriro ere entrenatzen. Aurten, Santi Pérez entrenatzailearekin hasi naiz, eta oso gustura ari naiz harekin.

EDU MENDIBIL



Izquierdo eta Hurtado, frontoniseko txapeldun

José Izquierdo eta Cándido Hurtado arrasatearrek irabazi zuten Debagoieneko Frontenis Masterra, domekan, Aretxabaletan jokatutako finalean, Patxi Vallejo eta Xabier Albisua bergararrei 25-14 irabazita. Master horretan, Debagoieneko zortzi bikote izan ziren lehian. Finalaren aurretik, hirugarren postua eskuratzeko partiduan, Karmelo Barcala eta Alejo García bergararrek 25-21 irabazi zieten Iñaki Sánchez eta Kepa García arrasatearrei.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Ritxi Mendiguren Futbolaria

Mendigurenek 1987an egin zuen debuta Athleticekin.

Iribarren eskutik egin zuen debuta, 1987an.

Bederatzi denboraldi egin zituen Athleticen.

Hogeita bederatzi urterekin erretiratu zen.

Lesio baten erruz, gazte utzi zuen futbola Ritxi Mendigurenek: "Athletic utzi ondoren, bigarren mailan zegoen Las Palmasek fitxatu ninduen, 1996an, baina ez nuen apenas jokatzerik izan, hernia diskaleko arazoengatik, eta erretiratzea erabaki nuen". Aurretik oso urte onak bizi izan zituen Athleticen. Hemeretzi urte zituela egin zuen debuta, San Mamesen, Iribarren eskutik. Partidu hartan hutsean gelditu ziren Athletic eta Cádiz: "Txikitako ametsa bete nuen Athleticekin debuta egin nuenean". Alkorta, Urrutia edo Garitano Ritxiren belaunaldikoak dira. Hurrengo denboraldian Howard Kendall iritsi zen San Mamesko aulkira: "Nire ustez, harekin eta Heynckesekin jokatu nuen ondoen". Liga, Kopa eta UEFA batuta, ia 200 partidu jokatu zituen Athleticekin. Ezkerra da. Aurrealdean edo zelai erdian aritzen zen; jokalari azkarra eta abila genuen. Golak ere egiten zituen. Denboraldi berean, Bartzelonari bi egin zizkion San Mamesen (3-2), eta Real Madrilen kontrako garaipenaren gola ere hark sartu zuen (1-0). Horrez gain, oroitzapenik onenetakoa Newcastle taldearen aurkako UEFAko kanporaketa da: "3-2 galdu genuen Ingalaterran, baina etxean 1-0 irabazi genuen. Izugarrizko giroa izan zen San Mamesen".

Daukan pena bakarrenetakoa da Euskadiko Selekzioarekin ez jokatu izana. Athleticek atzerritarrak fitxatzearen kontrakoa da, eta aurten zuri-gorriak Kopako finalera iritsiko diren itxaropena dauka (Kopako partidu guztietan izan da aurten). Gaur egun, ordenagailu denda bat dauka Bilbon, eta han bizi da. Oñatira gutxitan etortzen dela diosku. / E. M.

"Txikitako ametsa bete nuen 19 urterekin Athleticekin debuta egin nuenean. Urterik onenak Kendallekin eta Heynckesekin eman nituen, beharbada"



Ritxi Mendiguren • Oñati • 1968

Binakako Txapelketa Bergaran

Esain-Beloki eta Olaizola II.a-Errasti, aurrez aurre zapatuan, Udal Pilotalekuan

Binakako Txapelketaren barruan, Esain-Beloki eta Olaizola II.a-Errasti bikoteen arteko partidua izango da zapatuan, hilaren 19an, Bergarako Udal Pilotalekuan. Jaialdia 17:00etan hasiko da.

Lehenbiziko partidua Alustiza-Peñagarikano eta Salaberria-Balerdi bikoteek jokatuko dute, eta jaialdiko azken partiduan Salaberria-Balerdi eta Leiza-Begino izango dira aurrez aurre. T5 kateko *Frontón* saioak zuzenean eskainiko du zapatuko jaialdia.

Olaizola II.a, Errasti, Esain eta Beloki Bergaran izan ziren eguazten eguerdian, material aukeraketa egiten. Laurek antzeko pilotak aukeratu zituzten. Belokik adierazi zuenez, "pisuzko pilotak dira, eta Aimarri eta Jokini ere ondo etorriko zaizkie. Jokin ahultzea izango da gure taktika, eta Aimarrekin ere kontuz ibili beharko gara".

E.M.

Errasti, Olaizola II.a, Esain eta Beloki, eguazteneko material aukeraketan, Bergaran.

GARAIPEN BANA

Bi bikoteek garaipen bana lortu dute dagoeneko. Esainek eta Belokik 22-14 irabazi zieten Capellani eta Elkorori zapatuan, Logroñon, eta Olaizola II.a eta Errasti 22-6 nagusitu zitzaien Tirapuri eta Zearrari, domekan, Barakaldon. Jokin Errastiren hitzetan, "ea Aimar jokoan sartzen den, Ruben oso sasoi onean baitago. Bergarako frontoia asko gustatzen zait, eta ea partidu ona egiten dugun. Bigarren garaipena lortzea erabakigarria izan daiteke".

EDU MENDIBIL

Kirolabur

TENISA/DEBAGOIENA

Zapatuan, hilaren 19an, Debagoieneko Tenis Masterraren finala jokatuko da Bergarako Labegaraietako kiroldegian, 16:00etan. Ismael Zubia oñatiarra eta Jorge Aranes izango dira aurrez aurre. Finala bertan behera geratu zen aurreko domekan, euria zela-eta. Hirugarren posturako partiduan, José Caballero arrasatearrak Eneko Ugalde bergararrari irabazi zion.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Aste bukaeran, preferente mailako ibarreko futbol taldeek etxean izango dituzte partiduak. Bergarak Elgoibar liderraren aurka jokatuko du zapatuan, 16:00etan, Agorrosinen. Aloña Mendik Tolosaren kontra jokatuko du domekan Azkoagainen, 16:00etan, eta UDAk, berriz, Trintxerpe izango du bisitari domekan, 16:30ean.

ZIKLO-KROSA/ DEBAGOIENA

Iñaki Calvo bergararra bederatzigarren sailkatu zen Espainiako Ziklo-kros Txapelketan, gazte mailan. Jone Muxika elgetarra hamargarren izan zen emakumezkoen proban, eta Aitor Kortazar hamabigarren izan zen kadete mailako lasterketan.

Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak

Debagoieneko kirol-txartelari buruzko inkesta

Debagoieneko kirol zerbitzuok txartel bateratua ateratzeko egitasmoarekin aurrera jo aurretik, herritarron iritzia ezagutu nahi dugunez, honako bi galdera hauek egitera gatozkizu:

1. Zer iruditzen zaizu Debagoieneko kirol instalazio guztietara sarrera emango lukeen kirol-txartel mankomunatua?

a) Ondo
b) Gaizki

2. Aterako al zenuke txartel berri hau gutxi gorabeherako prezioak honako hauek izanik?

A) Abono murriztua: Gazteak (<18 urte), langabetuak, erretiratuak (>65 urte), elbarriak, ikasleak,...	69,12 € (11.500 Pta)
B) Norbanakoen abonoa: (18 urtetik 65 urte artekoak)	99,17 € (16.500 Pta)
C) Familia abonoa: (18 urte arteko seme-alabak barne)	138,23 € (23.000 Pta)

a) Bai
b) Ez
c) Ez dakit

Erantzuna herri bakoitzeko kirol instalazioetan eman ahal izango da, eta erantzuleen artean 3 Kirol-Txartel zozketatuko ditugu.



Aldape jatetxea

Iturriotz, 41 / ARRASATE
943 79 70 41

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta

Berezitasunak
- Porruak arrautza-irinetan pasatuta.
- Orein solomoa aran saltsan.
- Arraina plantxan.

Igandeetan itxita

JATETXE GIDA

On egin!

Araotz merenderua

Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

Eskaintza
- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerrak

Berezitasunak
- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

Eguenetik domekara zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Egunero zabalik

Panaderokua jatetxea

Salbador kalea, 10 / ELGETA
943 76 82 73

Eskaintza
- Menua
- Karta
- Kintadak

Berezitasunak
- Asteburu eta jaiegunetan bertako babak saiheski errearekin
- Asteburuko menu berezia

- **Martitzen arratsaldetan itxita**

Taberna-Berri jatetxea

Durana, 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandetan itxita

Zuhaizti jatetxea

Espoloia, 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza
- Pizzak
- Plater konbinatuak

Berezitasunak
- Etxeko postreak

Goienka 2a

Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 18tik 25era

Gaur, egubakoitza, *Tabakoaren Kalteak* ikusteko eta entzuteko aukera izango dugu Eskoriatzan. Ez da, ez, erretzeari uzteko ikastaroren baten lehenengo saioa, ez eta nikotinaren eragin kaltegarrien gaineko hitzaldiren bat. Izenburu horren azpian, literaturako eta antzerkigintzako klasiko baten maisulan bat dago: Anton Chéjov errusiarrak XIX. mendean idatzitako piezatxo ironikoa, kritikoa, jostagarria eta, era berean, gogoetara bultzatzen gaituena. Bakarrizketa baten bidez, gizon batek bere bizitzako iluntasunaren eta itxaropen faltaren berri emango digu. Harenda-ko tragedia dena guretako irri bihurtuko da. Eta gizon horren rola egiten, Debagoienean aski ezagun dugun aktore eta zuzendari bat izango da: Ramon Barea bilbotarra. Agertokian hura bakarrik izango den arren, Txalo Produkzioak taldearen babesa izango du Bareak. Hura bisitari izana dugu askotan ibarrean. Eta, aste honetan, bakarrizketa hori estreinatzeaz gain, *Bambulo* lana ere eskainiko digu Txalok, azken hori Mondragoen. / LEIRE KORTABARRIA

‘Tabakoaren kalteak’

Anton Chéjoven antzezlana Eskoriatzan, Txalo Produkzioen eskutik

GOIO ARANA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

ELKARRIZKETA/ **RAMON BAREAK BAKARRIZKETA ANTZEZTUKO DU ESKORIATZAN**

RAMON BAREA / AKTOREA

"Sentimenduez berba egiten dugu, eta gertutasun hori jendeak igartzen du"

Ramon Barea bilbotarra nerabezaroan sartu zen antzezpen munduan, bere kasa ikasi zuen, eta ordudanik, ogibide horren aukera guztiak probatu ditu: aktorea da zentzu zabalean. Gaur, bere lan berria ikusteko aukera dugu Eskoriatzan: *Sobre los perjuicios del tabaco*.

Tabakoaren gaineko izenburua izan arren, hau ez da tabakismoaren inguruko lana, ezta?

Izenburua antzerki lanaren haritik dator. Bakarrizketa bat da. Gai zientifiko baten -tabakoak egiten duen kaltea, alegia- gaineko hitzaldia egin behar duen gizon bat da protagonista eta bakarrizketatzailea. Hitzaldiaren gaiari eusten dio hasieran, baina, pixkana-pixkana, burua joaten zaio, eta bere bizitza pribatuko gogoetez egiten die berba entzuleei.

Lanak berak jatorri bitxia du…

Bai. *Sobre los perjuicios del tabaco* Anton Chejov errusiarraren lan laburren bilduma baten zati da; horien artean daude *Hartza*, *Esku eskaera* eta beste hainbat. Lan txikiago bezala dago kontsideratua. Kontua da Chejovek hainbat aldiz berridatzi zuela *Sobre los perjuicios del tabaco*. Lehenengoa, fartsa edo parodia antzeko testua, 1886koa da; bigarren bertsio bat 1903an kaleratu zen, tragikomedia antzekoa. Azken hau izan da antzeztuena. Baina, orain arte ezagutzen ez zen hirugarren bertsio bat da geuk taularatzen dugu na. Moldaketa hori Moskuko Artearen Antzerkiaren egoitzan aurkitu zuen Eusko Jaurlaritzako bekadun batek. Bertsio honetan ere, komediak eta gogoeta serioagoek eskua ematen diote elkarri.

Hirugarren bertsio hori sekula taularatu ez izana ez da erantzukizun handia zuretako?

Ez, ez, alderantziz, pizgarria da. Aktore naizen aldetik, oso ariketa polita da, estilo ariketa bat, erregistro eta ñabardura asko dituelako. Neuk oso gustuko dut testu hau. Eskatzen duen esfortzua alde batera utzita, oso gustura egiten dut.

Zure lehenengo bakarrizketa da. Horrek zer suposatzen du?

TXALO PRODUKZIOAK

***Sobre los perjuicios del tabaco* antzezlanaren une bat.**

"Lehenengo aldiz antzezten da lanaren bertsio berriena: pizgarria da hori niretako"

"Bakarrizketak gero eta hobeto hartzen ditu publikoak, ohitura badagoelako"

Bilbon estreinatu genuen, uztailean, La Fundición izeneko areto txiki batean, eta hasieran oso izututa nengoen: banekien publikoari begiratu behar niola eta berari zuzendu, eta hori ez nuen sekula egin. Orain, lasaiago nago. Izan ere, hasiera baten, protagonista neu izatea ere ez zegoen erabakita: La Fundicióneko zuzendariak proposatu zidan muntaia hori antolatzea eta bateren bat bilatzea, eta nik, orduan," zergatik ez ausartu?" galdetu nion neure buruari, eta erronka horri eustea erabaki nuen.

Alde handia igartzen duzu bakarrizketa baten eta bestelako antzezpen baten artean?

Bai, izugarrizko aldea dago, hemen bakar-bakarrik zaudelako eta ez dagoelako zuri laguntzeko inor. Publikoa zeuri begira dago hasieratik bukaerara arte, hortaz, lanaren arrakastaren erantzukizun gehiena zeure gainean duzu. Horrez gain, jendea ez da distraitzen beste pertsonaia batzuen sartu-irtenekin edo elkarrizketekin.

Zein iritzi duzu bakarrizketen gainean? Ez dira zailagoak publikoarendako?

Ez dute zertan zailagoak izan behar. Kontua da ahalik eta elementu dramatiko gutxienekin, ahalik eta adierazpen maila handiena lortzea, eta testu honek lortzen du, nire ustez. Gainera, jendeak bakarrizketak ikusteko ohitura gero eta handiagoa du. Adibidez, *El Club de la Comedia* delakoan umorezko bakarrizketak egiten dituzte. Hau ez da gauza bera, baina ohitura bat behintzat badago.

Egile klasikoak ala ez hain klasikoak dituzu gustukoago?

Ez diot testuari kulturik egiten. Nik ez nuen aurretik Chejoven lanik antzeztu, baina *Sobre los perjuicios del tabaco* honek gaurkotasun handia dauka, giza sentimenduez berba egiten duelako, eta jendeak hurbiltasun hori antzematen duelako. Egia da nik ez ditudala egile klasikoak horrenbeste jorratu, baina horrek ez du esan gura haietaz paso egiten dudala, baizik eta bestelako antzerki motekin probatu gura izan dudala.

Ihesarekin amets egin

Anton Chejov 1860.eko urtarrilaren 29an jaio zen Taganrog herrian, Errusian. Medikuntza ikasi arren, ez zuen sekula mediku bezala lan egin, idazle moduan berehala lortu zuelako arrakasta. *Vania osaba* (1897), *Hiru ahizpak* (1901) edo *Gereziondoen lorategia* (1904) dira bere lan ezagunenetariko batzuk, baina baditu baita "lan txikiagoak" bezala kontsideratuta dauden balio handiko idatzi batzuk ere. Gaur egungo literatura kritikak istorio laburraren aitzindarietarikotzat hartzen du Chejov. Antzerkiari dagokionez ere, klasikoen artean dago.

Bai kontakizunei, baita antzezlanei dagokienez, ezaugarri berberak ditu Chejoven lanak: bere garaiko eguneroko bizitzako egoerak, pertsonaiak eta ekintzak erabiltzen zituen Chejovek bizimodu baliogabe, gogaikarri eta bakartasunean amildutakoak irudikatzeko. Horrez gain, 1905eko iraultzaren aurreko gizarte errusiarra maisuki irudikatu zuen: orduko gizon-emakume askok gizarte feudal hura aldatu gura zuten, okerra zenaren jakinean, baina ezinezko zitzaien. Sentimendu horiek elementu gutxiren bidez aditzera ematea lortzen du idazle errusiarrak: inpresioak eta ideia bakar batzuk erabiltzen ditu.

Ildo hori jarraitzen du *Sobre los perjuicios del tabaco* bakarrizketak. Protagonista, neskendako eskola bateko zuzendariarekin ezkonduta dagoen gizon bat da, Ivan Ivanovich. Ikastetxeko kudeatzailea eta musika irakaslea da. Ihesarekin amets egiten du pertsonaiak, bere bizimodua gorroto duelako. Beretako tragedia dena, ordea, ikuslearendako komedia bihurtzen da.

Errusiatik Almeriara

Eguneroko bizitzak gogait eginda dagoen eta horren kontakizun tragikomikoa egiten duen gizona izatetik, XXI. mende hasierako cowboya izatera pasatuko da Ramon Barea. Izan ere, Alex de la Iglesiak esku artean darabilen proiektuan parte hartuko du aktore bilbotarrak aurki. Horretarako, Almeriako basamortura joango da lan taldearekin, "gaur egungo ukitua eta itxura duten bakeroen" istorioa errodatzera.

Halako erregistro aldaketa handia ez zaio arrotz Ramon Bareari. Aktore osoa dugu, genero guztiak probatu dituena. Telebistari eta zinemari ez die muzin egiten: "Antzerkia da aktorearen bide naturala, gertatzen dabilen eta gertatuko den guztia kontrolatu dezakeelako; zineman eta telebistan, ez da hori gertatzen. Edozelan ere, aktore bezala, antzerkiaren lasaitasuna gustatzen zaidan bezala gustatzen zait zinemaren edo telebistaren bizitasuna", dio berak.

Klasikoen bila

Nire bizitza eta ibilbidea kontatu gurako balute, hainbat biografia desberdin beharko lituzkete", esan digu Ramon Bareak. Eta ez zaio arrazoirik falta. Kontua da Bareak denetarik egin gura izan duela aktore lanbidearen barruan: "Kaleko antzezle bezala biografia bat egin beharko lukete; beste bat, musikaletako antzezle bezala; hirugarren bat, antzerki esperimentalean egin dudana kontatzeko…", gaineratu du.

Bareak,egin duen ezeri ez liokeela uko egingo onartu du: "Aktore batendako, antzezpen mota horiek guztiak egin izana sekulako bagajea da, ezinbestekoa zaion zerbait", diosku. Baina gauza bakar bat falta zitzaiola dio: "Klasikoak ez ditut hainbeste landu orain arte; gaur egungoak aukeratu izan ditut ia beti, baina ez batzuk besteak baino gustukoago ditudalako". Chejoven bakarrizketa honekin iritsi zaio arantza hori ateratzeko unea.

'Bambulo' ere gurean

Txalo Produkzioak taldeak ekoizten du *Sobre los perjuicios del tabaco*. Konpainia hori ikusi ahal izan dugu aurretik Debagoienean. Orain azkenengo, Oliver Sacks-en *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* lana taularatu zuten ibarreko hainbat herritan, eta Barea bera izan zen zuzendaria eta protagonistetako bat. Debagoienean izan zuten harreraz oso pozik geratu zen Ramon Barea: "Gauza ziurra da Debagoienera berriro etorriko garela antolatzen ditugun beste lanekin. Hori bai, oraingoz nahikoa lan dugu eta ez dugu bestelako proiekturik esku artean".

Baina beste lan batekin ere geurean ditugu Txalo taldekoak. Hain zuzen ere, *Sobre los perjuicios del tabaco* eskainiko duten aste berean, domekan hain zuzen ere, hilaren 20an, *Bambulo* lana taularatuko dute Arrasateko Amaia antzokian. Bernardo Atxaga idazlearen pertsonaia, txakur abenturazalea, da bertako protagonista.

KRONIKA/ BETAGARRI ETA CYPRINIDIANS ELGETAKO GAZTETXEAN

Tronpeta erritmo beroak

BIGARREN KANTUA BUKATU ORDUKO BEREGANATUTA ZITUZTEN GASTEIZTARREK IKUSLEAK

Taldea: Betagarri. **Noiz:** Urtarrilaren 11n. **Non:** Elgetako gaztetxean. **Batutakoak:** 150 bat lagun.

Italian egindako biraren ostean, urteko lehenengo kontzertua Deba ibarrean eman zuen talde gasteiztarrak. *Remix* diskoa aurkeztu ziguten; *ska*, reggae eta *ragg* erritmoak batzen ditu lan horrek. Oso soinu ona lagun, dantza eta salto artean igaro zuten kontzertua gaztetxean batutako guztiek.

OXEL EROSTARBE

Betagarri taldearen show berriko tronpeta erritmoek dantzan jarri zituzten ikusleak bigarren abestirako.

Betagarri eta Cyprinidians taldeen kontzertua iragarri zuten Elgetako gaztetxekoek aurreko barikurako. Gripeak jota bermeotarrek huts egin arren, Betagarrikoen tronpeta doinuak nahiko izan ziren gaztetxean batutakoak girotzeko.

Hasierako taldeak huts egin zuenez, aurreko diskoetako abestiekin hasi behar izan zuten gasteiztarrek kontzertua. Baina ez zegoen horren beharrik, izan ere, Iñakiri, taldeko abeslariari, haginka egin guran, taularen aurrealdean pilatu ziren neskatilak bigarren abestirako nahiko girotuta zebiltzan.

Laugarren abestirako, guztiak saltoka, dantzan eta kantuan. Gasteiztarren berben emozioa izango zen... Ez dut uste. Izan ere, taldea alor horretan hankamotz geratzen da. Gai interesgarriak ukitzen dituzte: inmigrazioa, herri txikion idiosinkrasiarako eskubidea, gizartea aldatzeko norberak parte hartu behar duela... Entzulearengan eragin nahi dute, era sinpleegian, agian. Zelan eragin entzuleoi, dena esanda, emanda hartzen dugunean.

Baina nor geratzen da letrekin salto eta salto artean? Inor gutxi. Ordu eta erdiko emanaldi bizia eskaini ziguten Aitor, David, Gotzon, Iker, Iñaki, Mikel Txakal eta Unaik. Iñakiren gidaritzapean, taulako antzezlana ondo ikasia daukate guztiek, eta horrek Betagarriren kontzertuei *show* kutsua ematen die.

Elgetan azken *show*-a, *Freaky festa*, aurkeztu ziguten. Durangorako kaleratu zuten *Remix* diskoan batu dituzten kantu berriak entzun genituen aurreneko aldiz. Kantu gehienak gorputza mugitzeko modukoak, baina bazeuden melodikoagoak zirenak ere. Kantu berri gehienak samplerraz lagundu dituzte, eta, hala, erritmo bizigoak lortu dituzte. *Jabe izan arte* eta *Zure atzetik* kantuak, besteak beste, gustura hartu zituzten gaztetxean batutakoek. Abesti eta abesti berri artean, 80ko hamarkadako arrakasten hainbat bertsio entzuteko aukera izan genuen, tronpeta-bertsioak, hain justu.

Gasteiztarrek zuzeneko bizia daukatela erakutsi zuten berriro ere. *Ska*, reggae eta *ragg* doinu mugikorrekin, herriko *penduluenak* ere dantzan jartzeko modukoa. Betagarri entzuteko egarri ziren ikusleak. Bermeoko Cyprinidians ez zuen inork faltan sumatu hasieran, baina bai bukaeran. Ohi bezala, Betagarrikoek *Revolution Remix* abestiko doinu iraultzaileekin bukatu zuten kontzertua. Kantuon berotutasunean, bukatu zen barikukoa. Kontzertua uste baino azkarrago bukatzeak, ordea, gure *freaky festa* hoztu zuen. Berriro etorriko direla aurreratu zuten, eta gaztetxean batutakoak ere ziur bueltatuko direla.

OXEL EROSTARBE

NIREAUKERA

Dabid Fernández
Jam-eko promozio sailekoa

Zen Guerrilla taldearen *Shadows on the Sun* diskoa gomendatu gurako nuke. Iaz argitaratutako diskoen artean, onenetariko bat iruditzen zait. Disko izugarria da, eduki beharreko horietako bat. Gaur egun oso talde gutxik eskaintzen dituzten hainbat ezaugarri batzen ditu disko horrek: autentikotasuna, intentsitatea, *feeling*-a eta alde guztietatik darion energia itsaskorra. Disko horrekin, Zen Guerrilla-k argi eta garbi erakutsi du ez dela zuzeneko talde handi bat bakarrik; rock-and-rolla bluesarekin, soularekin, punkarekin eta *rhythm&blues*-arekin nahastu dute azken lanean. Zuzeneko emanaldietan euren onena ematen dute, horregatik daude kontsideratuta gaur egungo zuzeneko talde bikainenetariko bat. Baxu jotzailea eta bateria jotzailea, batez ere, izugarriak dira zuzeneko emanaldietan.

'SHADOWS ON THE SUN'
Zen Guerrilla



LEIRE KORTABARRIA

KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

LIBURUA / Narratiba



LEHORREKO PATERAK

Iñaki Friera
Susa
142 orrialde

Pateretan Europara iristen diren gizon-emakumeak dira Iñaki Frieraren nobelako protagonistak. Itsasoa zeharkatzea baino nekezagoa eta bortxazkoagoa bilakatuko da lehorreko mundu eta bizimodu berria.

Dramatikoa da, inondik bada ere, Espainiako lurretara iristen direnek bizi beharko dutena. Europako ametsa, amets galdu eta gezurtia.

Ahmedek beste xede batekin hasiko du Europarako ibilbidea. Hamazazpi urteko gazte marokoarra da Ahmed. Haurdun dagoen Jezabelekin batera saiatuko da telebistaren baten ikusi duten mundu perfektu hori ezagutzen. Gizatasun handiz kontatutako gertakizunak dira. Oraindik inoiz ez duzu pentsatu pateretan?

LIBURUA / Ekonomia



KANPO-ZORRAREN PATOLOGIA

Joseba F. Tobar-Arbulu
UEU
145 orrialde

Egunero gosez hiltzen diren hamaika haurren oroitzapen saminean".

Horrelaxe hasten da Joseba F. Tobar Arbuluk idatzi eta Udako Euskal Unibertsitateak argitaratutako liburua.

Kanpo-zorraren arazoa nazioarteko ekonomiaren errealitate mingarria da. Zenbait bide erabili dira kanpo-zorraren zama murrizteko. Orain arte proposaturikoak adabakiak baino ez dira izan, hots, ez dira benetako irtenbidea izan. Kontua ez dagokio arlo moral edo etikoari, banku-monetaren konzeptu faltsu bati baizik.

Bernard Schmitt ekonomialariaren teoriaren laguntzaz, kanpo-zorraren zerbitzuaren irtenbideak zer-nolakoa izan beharko lukeen aztertu du liburu honetan autoreak.

DISKOA / Popa

NORI EGIN SO!

Labrit
Elkarlanean
10 kantu

Kantaera zaindua du Labritek. Erakutsia zigun Bide Ertzeanekin koruak egiten zituen hartan. Urruti geratu dira orduko denborak eta harrezkero bi disko ditu kalean, hau bigarrena.

Hamar abesti dira Labritek kantuan eman dezakeena konfirmatzera datozenak. Hamar abesti bere ahotsa nolakoa den ikusteko. Bere hitzetan, desirak, bizitza, askatasuna eta izatea. Bizitzaren borrokaz dihardu disko honetan Labritek. Kanta bitan bi poeta izan ditu lagun: Sabin Muniategi eta Jose Luis Otamendi.

Pop-rocka, reggae pixka bat, funkya eta baita erritmo latinoak ere. Guzti hori kokteleran sartu eta *Nori egin so!*

Elkarlanean argitaletxeak atera du diskoa.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko aurtarrilaren 18a

Urtarrilak 18-25

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ANTZERKIA

ARETXABALETA

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoen emanaldia izango da zapatuan, urtarrilaren 19an, kirol etxean, 17:00etan.

ARRASATE

► **Txalo Produkzioak** taldeak Bambulo lana antzeztuko du domekan, urtarrilaren 20an, Amaia antzokian, 19:30etan.

ELORRIO

► **Nearco Producciones** taldeak *La tentación vive arriba* antzezlana jokatuko du egubakoitzean, urtarrilaren 25ean, Arriola aretoan, 22:30ean, Verónica Forqué-ren zuzendaritzapean.

► **Azika Txotxongilo Taldeak** *Kontu Konta Izan* umeendako antzezlana eskainiko du domekan, urtarrilaren 20an, Arriola aretoan, 17:00etan.

ESKORIATZA

► **Txalo taldeak eta Ramon Bareak** Anton Chejov-en *Sobre los perjuicios del tabaco* lana eskainiko dute gaur, hilaren 18an, unibertsitatean, 22:30.

OÑATI

► **Ttanttaka taldeak *Errudun Jaioak*** lana eskainiko du gaur, hilaren 18an, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Deba Korkons** taldearen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, hilaren 18a, gaztetxean, 23:00etan.

ARRASATE

► **Heavy festa** antolatu du Ekaitz tabernak gaurko. 19:00etatik aurrera, heavy taldeak, disko jartzaileak eta hainbat ezuste izango dira.

► **Lif, Izaera eta Spank(2)** taldeen kontzertua izango da bihar, urtarrilaren 19an, gaztetxean, 21:30ean.

BERGARA

► **Ira et Decesus eta Nor Jainkoa bezala** taldeen kontzertua izango da gaur, hilaren 18an, gaztetxean, 22:00etan.

► **Astrozombies, Capitán Nemo eta Huevos de Kinder** taldeen emanaldia izango da zapatuan, hilaren 19an, gaztetxean, 22:30ean.

► **Tronpeta barroko eta organo kontzertua** izango da bihar, urtarrilaren 19an, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **RIP, Flyshits, Supercool eta Goiko-Rock** taldeen emanaldia izango da egubakoitzean, hilaren 25ean, Jam aretoan, 21:30ean.

► **Udal Musika Bandak** emanaldia egingo du domekan, urtarrilaren 20an, herriko pilotalekuan, 12:30ean.

ELORRIO

► **Ruper Ordorika** musikariak emanaldia egingo du zapatuan, hilaren 19an, Arriola aretoan, 22:30ean.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Nagusiendako euskal dantzak.** Lehendik izena emanda zeukatenez gain, parte hartzaile berriak hartuko dituzte. Egubakoitzero dira saioak, Musika Eskolan, 19:15ean.

► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izenematea Kultura Etxean edo 943 71 10 27 zenbakira deituta.

► **Yogako hastapen ikastaroa eskaintzen du** Sadhana yoga taldeak. Argibideetarako: 616 96 57 95.

ARRASATE

► **Sabel dantza ikastaroa** izango da urtarrilaren 19tik aurrera, zapatuero, Arrasate Musikalen, 16:00etatik 18:00etara. Izena emateko edo argibideetarako, deitu Gazte Bulegora, 943 77 00 65 telefonora.

► **Latindar eta saltsa erritmoen gaineko perkusio ikastaroa** izango da urtarrilaren 28tik otsailaren 25era arte, astelehenero. Hastapen maila landuko dute. Gazteluondoko aretoan izango dira eskolak, 18:00etatik 20:30era, eta Iñaki Bruña izango da irakaslea. Matrikulak 3.500 pezeta kostako du. Izena emateko, deitu gazte bulegora edo 943 79 80 25 zenbakira.

BERGARA

► **Zeramikaren hastapenei buruzko ikastaroa** izango da ekaina bitartean. Izena emateko, deitu 943 76 19 17 edo 606 68 41 94 telefono zenbakietara.

► **Fandango eta Arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Argibideak: 943 76 15 40.

► **Pintura ikastaroa** antolatu du Beart elkarteak. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideetarako, deitu 656 72 44 49 telefonora.

DEIAK

ARAMAIO

► **Indonesiako uharteen gaineko** diapositiba emanaldia egingo du Andoni Arriolabengoak eguenean, urtarrilaren 24an, kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA

► **Ikurrinari omenaldi ekitaldia** egingo diote bihar, hilaren 19an, udaletxeko osoko bilkura aretoan eta gero plazan, 19:00etatik aurrera. Ikurrinaren legeztapenaren 25. urteurrena dela-eta, hilaren 19an, balkoietan ikurrina ipintzea eskatzen du udalak.

► **UDAren partiduan,** ikurrinaren omenezko ekitaldia egingo dute.

► **II. Aretxabaleta Sariak** banatuko dizkiete Hiruatxi eta herriko pilota taldeari bihar, urtarrilaren 19an, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 12:00etan.

► **Hezkuntza sistemaren gaineko hitzaldia** egingo du Joana Etxeberriak eguenean, hilaren 24an, Murrikixoren lokalean, 19:00etan.

► **Kepa Urra presoari bisitaldia** antolatu dute Euskal Presoak Euskal Herrira plataformakoek datorren zapaturako, urtarrilaren 26rako. Izena emateko azken eguna hilaren 23a izango da, Arlutz edo Urbaltz tabernatan.

► **Imsersok antolatutako bainuetxe programarako** izenemate epea zabalik dago. Udaberriko txandarako izena emateko azken eguna urtarrilaren 21a izango da; udazkeneko txandarako, maiatzaren 16a.

ARRASATE

► **Ikurrinaren legeztapenaren 25 urteak ospatzeko,** ekitaldi berezia izango da urtarrilaren 19an. Ikurrinari omenaldia egingo diote lehenengo udaletxean, eta ekitaldiak plazan jarraituko du. 19:00etatik aurrera izango dira.

► **Kontzertu ekonomikoa: morrontza ekonomikoa** gaiaren gaineko hitzaldia egingo du Eusebio Lasa ekonomilariak eta Batasunako kideak eguenean, hilaren 24an, Monterronen, 19:00etan.

BERGARA

► **Bake konferentziaren garapen fasearen aurkezpen ekitaldia** antolatu du Elkarrik eguaztenerako, urtarrilaren 23rako. Helburua izango da gizartearen parte hartzea eragitea. Kultura etxean izango da, 19:30ean.

► **Bideo emanaldia eta liburu baten aurkezpena** izango dira eguaztenean, hilaren 23an, gaztetxean. *La Ruta de la Impunidad* izango da bideoa; segidan, Pepe Reik *El Libro Negro de Intxaurrondo* liburua aurkeztuko du. 19:00etatik aurrera izango dira.

► **Herriko odol emaileen elkarteak** euren lehenengo presidenteari, Joseba Jauregiri, omenaldia egingo dio zapatuan, urtarrilaren 26an. Bazkaria egingo dute Azpeitzi jatetxean, eta gura duen orok har dezake parte. Izena emateko, deitu Pedro Egañari, 943 76 23 94 telefonora.

► **Behaketa maratoia** antolatu du Pol-Pol mendizale elkarteak urtarrilaren 26rako. Izena emateko, jo elkarteko bulegora, 19:30etik 20:30era, edo deitu 943 76 48 51 telefonora.

ELGETA

► **Imsersok bainuetxe programa antolatu du,** erretiratuendako, edo ezintasun edo alarguntasun pentsioa jasotzen dutenendako. Egonaldia abuztuan egiteko izenemate epea urtarrilaren 21era arte izango da zabalik. Argibideetarako, jo udaletxeko gizarte langilearengana.

OÑATI

► **Laixan euskara elkarteak egindako 2002ko egutegia salgai dago** Turismo Bulegoan, 400 pezetan. Antzinako argazkiekin egin dute. *Oñatiko Gida'02* ere salgai dago, hori, 500 pezetan.

► ***Nola garatzen dira guraso eta seme-alaben arteko harreman osasuntsuak*** izeneko hitzaldia egingo du Amaia Ezeiza psikologoak eguazte-

► ZINEMA

JON ANDUEZAREN AZKEN LANA ETA BESTE HAINBAT FILM LABUR

Hilaren 24an, eguenean, estreinatuko da Jon Andueza arrasatearrak egindako azken film laburra, *Aita Guria*. Filmaren gehiengoa Elgetan errodatu zuten. Neskatxo batek eta apaiz batek protagonizatutako istorioa da *Aita Guria*, eta rol nagusiak Martxelo Rubiok eta Oihana Juantorenak egiten dituzte. Beste film labur batzuk ere eskainiko dituzte: Ramón Salazarren *Hongos* -50 sari irabazi dituena-; Luiso Verdejoren *Ya puede caminar*; Javi Alonsoren *Buenas noches, papá*; eta Borja Cobeagaren *La primera vez* -azken hau Goya sarietarako izendatua egon zen.

Non: Arrasaten, Amaia udal antzokian. **Noiz:** urtarrilaren 24an, eguena. **Ordua:** 21:30etik aurrera.

SAN ANTON JAIAK BERGARAN

Bergarako San Anton auzoa jai giroan sartuta dugu. Bihar eta etzi, hainbat ospakizun izango dira han, goizetik hasita. Besteak beste, auzo txikiteoa, afaria, meza, mus txapelketa eta sari banaketa, euskal dantzak eta kirolak, krosa… egiteko eta ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

nean, urtarrilaren 23an, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► ***Orientazioa. DBH eta Batxilergoa bukatu ondoren aukeratu egin beharra*** delako hitzaldia egingo du Begoña Berroeta adituak eguaztenean, hilaren 23an, Zuazola Institutuan, 18:30ean.

► **Zumaia eta Debara irteera** antolatu du Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak datorren domekarako, hilaren 27rako. Lasturren bazkaria ere egingo dute. Izena emateko azken eguna hilaren 24a izango da.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA

► **Ikurrinaren gaineko** argazki erakusketa izango da hilaren 23ra arte, Murrukixoren lokalean.

BERGARA

► **Jose Mari Galanen eta Artur**en argazki eta artisautza lanen erakusketa dago ikusgai Artekalean.

► **Mila Garmendia** arrasatearraren olioen erakusketa dago Nahikari tabernan, urtarrilean zehar.

JAIAK

ARETXABALETA

► **San Bizente Eguna** ospatuko dute Areatza auzokoek martitzenean, hilaren 22an. 16:45ean ongi etorria izango da, eta 17:00etan, meza auzoko ermitan. Gero, soinujoleekin Garaikora joango dira, eta han solasaldia egingo dute.

MUSEOAK

ARETXABALETA

► **On Jose Maria Arizmendiarrieta museo-gela berriztatua.** Otalora jauregian, Urkulura bidean.

ESKORIATZA

► **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Argibideetarako, deitu 943 71 54 53 zenbakira.

LEINTZ GATZAGA

► **Gatz museoa.** Asteburuetan eta jaiegunetan lau bisitaldi. Argibideetarako, deitu 943 71 47 46 telefonora.

AZPEITIA

► **Trenbidearen euskal museoa.** Julian Elorza, 8.Hona hemen ordutegiak: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era. Zapatuetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 17:30era. Domeka eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era bitartean.

Zinema

ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

Amelie
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Harry Potter
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:30.
Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Sunshine
Eguena, zinekluba: 20:00.

OÑATI

■ **SANTA ANA**

Ni una palabra
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

El bosque animado
Domeka: 17:00.

Acordes y desacuerdos
Eguena, zinekluba: 20:00.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Harry Potter
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:30.
Domeka: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Ocean's eleven
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El experimento
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos

El único
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

K-Pax, un universo aparte
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Amor ciego
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Un crimen en el paraíso
Egubakoitza eta zapatua: 01:00.
Domeka: 20:15, 22:30.
Astelehena eta eguaztena: 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Ocean's eleven
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Bandits
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Spy game (juego de espías)
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

El señor de los anillos
Egubakoitza: 19:45, 23:00.
Zapatua: 16:30, 19:45, 23:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 20:30.

Atlantis, el imperio perdido
Zapatua eta domeka: 17:30.

Harry Potter
Egunero: 17:00, 20:00.

A mi madre le gustan las mujeres
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

The Hole
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Moulin Rouge
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Princesa por sorpresa
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Zoolander
Egunero: 22:45.
Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Italiano para principantes
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

El hijo de la novia
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Intimidad
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

El lugar donde estuvo el paraíso
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La cuadrilla
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Arderás conmigo
Egubakoitza: 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 20:00, 22:30.

Hijos de un mismo Dios
Egubakoitza: 17:30, 01:00.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30.

Kiriku y la bruja
Zapatua eta domeka: 17:30.

■ **STER ZINEMAK**

Ocean's eleven
Egubakoitza: 15:55, 18:20, 20:45, 23:10, 01:35.
Zapatua: 12:35, 15:55, 18:20, 20:45, 23:10, 01:35.
Domeka: 12:35, 15:55, 18:20, 20:45, 23:10.
Astelehenetik eguenera: 15:55, 18:20, 20:45, 23:10.

Spy game (juego de espías)
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Harry Potter
Egubakoitza: 16:20, 19:15, 22:10, 01:10.
Zapatua: 12:10, 16:20, 19:15, 22:10, 01:10.
Domeka: 12:10, 16:20, 19:15, 22:10.
Astelehenetik eguenera: 16:20, 19:15, 22:10.

Hijos de un mismo Dios
Egubakoitza: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.
Zapatua: 12:50, 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.
Domeka: 12:50, 16:00, 18:05, 20:10, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 16:00, 18:05, 20:10, 22:15.

El señor de los anillos
Egubakoitza: 16:00, 19:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 21:30.

El único
Egubakoitza: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Zapatua: 12:40, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:40, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.

Kirikou y la reina
Zapatua eta domeka: 12:25.

The Hole
Egubakoitza: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.
Zapatua: 12:30, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.
Domeka: 12:30, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.
Astelehenetik eguenera: 16:10, 18:20, 20:30, 22:40.

Amor ciego
Egubakoitza: 16:05, 18:25, 20:45, 23:05, 01:25.
Zapatua: 12:15, 16:05, 18:25, 20:45, 23:05, 01:25.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:25, 20:45, 23:05.
Astelehenetik eguenera: 16:05, 18:25, 20:45, 23:05.

Bandits
Egubakoitza: 17:20, 19:50, 22:20, 00:50.
Zapatua: 12:05, 17:20, 19:50, 22:20, 00:50.
Domeka: 12:05, 17:20, 19:50, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:50, 22:20.

■ **YELMO CINEPLEX**

Ni una palabra
Zapatua eta domeka: 12:00, 15:45, 18:05, 20:30.
Egunero: 15:45, 18:05, 20:30.

Ghost world
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 01:00.
Egunero: 22:45.

Kiriku y la bruja
Zapatua eta domeka: 12:45, 16:30.
Egunero: 16:30.

American Pie 2
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:35, 22:50, 00:55.
Egunero: 18:10, 20:35, 22:50.

El señor de los anillos
Egubakoitza: 16:00, 19:30, 23:30.
Zapatua: 11:30, 16:00, 19:30, 23:30.
Domeka: 11:30, 15:20, 18:45, 22:05.
Astelehenetik eguenera: 15:20, 18:45, 22:05.

The hole
Egubakoitza: 15:45, 18:05, 20:30, 22:45, 00:55.
Zapatua: 12:15, 15:45, 18:05, 20:30, 22:45, 00:55.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:05, 20:30, 22:45.
Egunero: 15:45, 18:05, 20:30.

Juana la loca
Zapatua eta domeka: 12:20, 15:35, 18:00.
Egunero: 15:35, 18:00.

Amelie
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:40, 01:00.
Egunero: 20:20, 22:40.

El único
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:40, 22:50, 00:40.
Zapatua: 12:10, 16:30, 18:30, 20:40, 22:50, 00:40.
Domeka: 12:10, 16:30, 18:30, 20:40, 22:50.
Egunero: 16:30, 18:30, 20:40, 22:50.

Amor ciego
Egubakoitza: 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Zapatua: 12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Domeka: 12:15, 15:40, 18:00, 20:20, 22:40.
Egunero: 15:40, 18:00, 20:20, 22:40.

K-Pax
Egubakoitza: 15:30, 17:40, 20:00, 22:25, 00:45.
Zapatua: 12:05, 15:30, 17:40, 20:00, 22:25, 00:45.
Domeka: 12:05, 15:30, 17:40, 20:00, 22:25.
Egunero: 15:30, 17:40, 20:00, 22:25.

Harry Potter
Egubakoitza: 15:30, 18:30, 21:30, 00:25.
Zapatua: 11:45, 15:30, 18:30, 21:30, 00:25.
Domeka: 11:45, 15:30, 18:30, 21:30.
Egunero: 15:30, 18:30, 21:30.

Ocean's eleven
Egubakoitza: 15:35, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Zapatua: 12:00, 15:35, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:00, 15:35, 17:45, 20:05, 22:30.
Egunero: 15:35, 17:45, 20:05.

El misterio del collar
Egubakoitza: 15:30, 17:50, 20:10.
Zapatua: 11:55, 15:30, 17:50.
Domeka: 11:55, 15:30, 22:30.
Egunero: 15:30, 17:50, 20:10, 22:30.

Los otros
Zapatua eta domeka: 12:35, 15:40, 17:50, 20:05.
Egunero: 15:40, 17:50, 20:05.

Lucía y el sexo
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:45.
Egunero: 22:15.

Bandits
Egubakoitza: 17:00, 19:40, 22:10, 00:30.
Zapatua: 12:10, 17:00, 19:40, 22:10, 00:30.
Domeka: 12:10, 17:00, 19:40, 22:10.
Egunero: 17:00, 19:40, 22:10.

Atlantis
Zapatua eta domeka: 12:30, 15:50, 17:55.
Egunero: 15:50, 17:55.

Moulin rouge
Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:20, 00:50.
Egunero: 19:50, 22:20.

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

GHOST WORLD

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Terry Zwigoff.
AKTOREAK: Thora Birch, Scarlett Johansson, Steve Buscemi.

Ghost World zinemara egokitutako Estatu Batuetako komikia da. Pelikularen hasierak euren inguruan dagoen dena mespretxatzen duten bi neska bihurriren ibilaldiak kontatzen dizkigu. Neskek, egun batean, egunkariko iragarki bat irakurri ondoren, iragarkiaren bidaltzaileari adarra jotea erabakiko dute. Istorioaren abiaburuak, komedia esperpentiko eta desengainatuaren tonua erabiliaz, euren inguruan mugitzen diren pertsonaia bitxiekin dituzten harremanak erakusten dizkigu. Honela, pentsa dezakegu zuzendariak pertsonaia xelebre eta esperpentikoak, baina arketipikoak, bakarrik eskainiko dizkigula. Bada, ez, poliki-poliki beldur hau desagertzen joango da, komediak eta esperpentoak denbora luzean ikusi dugun pertsonaia triste eta babesgabeenetariko baten barneko erretratuari tarte bat egiten diotela ikusterakoan. Pertsonaia horren izena: Enid Clowes.

Filmak ikuslearen konplizitatea eta arreta behar ditu. Kontatzen digun istorioa pintzelkaden bitartez doa aurrera. Hau da, iraupen gutxiko eszenak erabiliaz, protagonistak bere lagun min eta bakarrarekin, bere aitarekin, janari dendako mutilarekin, arte klaseko kideekin eta, batez ere, 40 urteko gizon patetiko eta hunkigarriarekin dituzten harremanak ikusteko aukera ematen digu.

Horregatik, film triste eta bitxi honek hasieran nahastu egiten gaitu eta nondik nora doan antzematea kostatu egiten zaigu. Baina poliki-poliki ikusiko dugu nola, aipatutako pintzelkaden bitartez, nerabe baten erretratu hondagarria sortuko den: hutsik sentizen den neska nihilista eta deuseztua; mamuen erara, atsedenik gabe noraezean ibiltzen zigortua dagoen neska; mundua eta bizitza mespretxatzen dituen eta zer nahi duen ez dakien pertsonaia.

Neska eta 40 urtetik gorako gizonaren arteko harremanak filmaren momentu aipagarrienak dira. Bertan, Thora Birch eta Steve Buscemiren lan bikainak zerikusi handia duela, filmaren alde esperpentikoa galdu gabe, pertsonaien barnealdea ikustea lortzen da.

ANTONIO ZABALA

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Lursail txiki bat duen etxebizitza salgai. Hiru logela. 943 79 48 97.

Bergara. San Antonen, Idaban urbanizazioan, 75 m²ko etxebizitza salgai. 3.500 m²ko lursail komunitarioa. 943 76 24 50 edo 607 89 89 39.

Angiozar. Etxebizitza salgai. Berritua. Berogailua, altzari berriak, garajea eta ganbara. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

Torrevieja. Bungalowa salgai. Guztiz hornituta. Loraategia eta terraza pribatua. El Cura hondartzatik gertu. 652 71 76 81.

